

## Ate irekiak

Natur Eskolako instalazio berriak herritar guztientzat zabalduko dituzte Ingurumen Jardunaldien baitan, otsailaren 7tik martxoaren 4ra



# ADIKZIOAK

## prebenitzeko plana berrituko du Udalak

**AGIPAD elkarteak kontratatatu du Udalak plan berria osatzeko**



Udaleko eta AGIPAD elkarteak ordezkariak, adikzioak prebentzio plana eguneratzeko prozesuaren aurkezpenean

2017an onartu zen adikzioei aurrea hartzeko udal mailako azken plana, eta kontuan hartuz azken urteotan adikzio mota berriak sortu direla gizartearen, prebentzio plana berritu eta eguneratzea erabaki du Udalak. Eta horretan laguntzeko AGIPAD (Asociación Guipuzcoana de Investigación y Prevención del Abuso de las Drogas) elkarteak kontratatatu du. Aurrera, Oñatiko gaur egungo egoeraren diagnostika egingo dute, eta, beraz, animatu egin nahi dituzte herritarrak datozen asteetan egingo diren inkesta eta lan bileretan parte hartzera. Ahalik eta informazio gehien jasotzea da helburua, Oñatiko errealitateari eta beharrei ahalik eta zehatzen erantzungo dien plana osatzeko.

Udalak urte asko daramatza drogomenpekotasunen inguruko prebentzio lana egiten, baina gizartea aldatuz doan heinean adikzio mota berriak sortu dira gure artean, eta errealitate berri hori jasoko duen prebentzio plan berria eta eguneratua egitea da udalaren asmoa, Izaro Elorza

alkateak adierazi duenez. "AGIPAD elkartearekin batera parte hartze prozesu bat jarriko dugu abian, adin ezberdinetako herritarren iritzia eta ikuspuntuak jasotzeko. Lanketa sakona egin nahi dugu, Oñatiko errealitateari egokitutako plana osatzeko eta, beraz, animatu egin nahi ditut



**PLAN BERRIA**  
Adikzioei aurrea hartzeko azken udal planaren (2017-2020) indarraldia amaituta dago, eta berau eguneratu nahi du Udalak

herritarrak, hurrengo asteetan egingo diren inkesta eta bilera ezberdinetan parte hartzera".

COVIDaren agerpenak ere aldaketa asko eragin ditu gure bizimoduetan, bai harreman-tzeko moduetan eta baita kontsumitzeko moldeetan ere, eta hori guztiori ere jaso nahi da prebentzio plan berrian.

### ADIKZIO MOTA GUZTIAK

Adikzioen fenomenoari bere orokortasunean begiratu dion plana izango da, AGIPAD elkarteak Lukene Lizasok adierazi duenez. "Fenomeno dinamikoa dela garbi dago, ikusi besterik ez dago orain substantziarik gabeko mendekotasunez ere hitz egiten dugula: apustuak, bideojokoak,



Lukene Lizaso / AGIPAD

## Adikzioak jokaera arazo izaten hasten dira, osasun arazo baino lehen



sare sozialak... Horiek guztiak ere kontuan hartuko ditugu, substantziak ahaztu gabe noski".

Adikzio mota guztiak dira kezkatzeko modukoak, Lizasoren ustez. "Adikzioak jokaera arazo izaten hasten dira osasun arazo baino lehen. Beraz, denek eragiten digute kaltea".

Adinari dagokionez ere orokortasunean begiratuko diote herriari. "Lanketa berezia egingo da nerabeekin eta hauen inguruan diharduten eragile ezberdinekin, baina helduen errealitatea ere hartuko dugu kontuan, hauekin ere egin behar baita prebentzio lana, ez bakarrik gazteekin" gaineratu du AGIPADeko kideak.

### OÑATIKO ERREALITERA EGOKITUTAKO PLANA

Prebentzio plana idatzi aurretik Oñatiko gaur egungo egoeraren diagnosia egingo du AGIPADek. "Oñatiko beharretara egokitutako plana izatea nahi dugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da gaur egungo errealitatearen argazki ahalik eta zehatzena ateratzea.

Herri guztiak ezberdinak dira, eta bakoitzak ditu bere ohitura eta joerak. Horiek dira jaso nahi ditugun datuak; oñatiarrek zer egiten duten, nola... horren inguruko hausnarketa egin eta detektatutako beharrak identifikatuz proposamen egokiagoak egin ahal izateko", azaldu digu Lizasok.

"Horretarako inkesta bat presatuko dugu herritar guztiei luzatuko dieguna, modu anonimoan betetzeko. Ondoren hezkuntza zentro eta herriko eragile ezberdinekin bilduko gara (osasun arloa, herri mugimenduetan edo kirol arloan dabiltzanak...), eztabaida taldeak osatzeko. Udalak luzatuko digun eragileen zerrendarekin antolatuko dugu hau guztiau" gaineratu du AGIPADeko ordezkariak.

Dagoeneko hasi dira lehen bilerak egiten herriko eragileekin, eta datozen asteetan herritarrei zuzendutako inkestak zabalduko dituzte. "Gure asmoa da Aste Santu ingururako informazio eta datu guztiak jasota edukitzea, eta ikasturte bukaerarako plan bat proposatzea" argitu du Lizasok.

Oñatiko adikzioen inguruko gaur egungo errealitatea zein den aztertu ondoren, prebentzio mailan hartu daitezkeen neurriak, ekintzak eta laguntza proposamenak jasoko ditu planak. "Oñatin urte asko daramatzagu prebentzio mailan lanean, Udalarekin batera. Ez gara zerotik hasten eta, beraz, orain arte egin den lanaren balorazioa egingo dugu, eta ondo funtzionatu duten neurriak indartuko ditugu, baina beti ere egungo errealitateari eta Oñatiko beharrei erreparatu eta erantzunez". ■

## 30 urte drogomenpekotasunen inguruko prebentzio lana egiten

Oñatiko Udalak urte asko daramatza, 30 inguru, drogomenpekotasunen inguruko prebentzio lana garatzen. Urte hauetan zehar gizartea izugarri aldatu da eta behar-beharrezkoa da arlo honetan sortzen diren ekintza edo proiektuak egoerarekin eta gaurkotasanarekin bat etortzea.

Prebentzioari buruz hitz egiterakoan, sustantzien kontsumoari buruz aritu izan gara urte luzez. Eta horren inguruan antolatu izan dira estrategia eta ekintza ezberdinak, gizarte eragileak kontuan izanik, beti ere: guraso-eskolak, ikastetxeetan ikasle eta irakasleei zuzendutako tailerrak, jaien inguruko kontzientziazio kanpainak (*Testing* proiektua adibidez), gizarte eragileentzako formazio saioak, topaketak... etab.

Horiez gain, 2018an Adikzio mota desberdinen tratamendurako dirulaguntzen araudia onartu zuen Udalak. Menpekotasunen bat duten pertsonek tratamendua jasotzera Oñatitik irten behar izaten dutela ikusirik, joan-etorrien gastuei aurre egiten laguntzeko diru-laguntza programa jasotzen da bertan.

Aurten adikzioak prebenitzeko plan berria egitera doa Udala, eta, horretarako, egungo egoeraren diagnosia egingo da aurrena, plana gure herriko errealitatera egokitzeko asmoz. Besteak beste, aisialdiko ohiturak, denbora libreko azturak eta herritarron kontsumo mota eta modu ezberdinak aztertuko dira bertan. Jakin badakigu bizi dugun osasun krisiak eragin zuzena izan duela guztion egunerokoan.



Ainara Gerrikabeitia Auzmendi, udaleko gizarte langilea



Ramon Irizar kalea, 3  
Tel: 943 71 61 60

✉ [etxian@etxian.net](mailto:etxian@etxian.net)  
[www.etxian.net](http://www.etxian.net) f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • [garibai@garibai-aroztegia.com](mailto:garibai@garibai-aroztegia.com)  
[www.garibai-aroztegia.com](http://www.garibai-aroztegia.com)



Aimar  
Uribesalgo,  
Nahia Barrena  
eta Idoia Bollar,  
natur eskolako  
hezitzaileak  
(Martxel  
Aiastuik  
osatzen du  
lantaldea)

## ATE IREKIAK



Natur Eskolako atea irekita egongo dira **otsailaren 7tik martxoaren 4ra**, astegunetan (16:00-18:00), bertan egin diren berritze lanak bertatik bertara ikusi ahal izateko. Bisita gidatua egingo da egunero 17:00etan. Gogoratu, bioeraikuntza kontzeptuak aplikatuz egin direla birgaitze lanak

### NATUR ESKOLAKO LANTALDEA

# "Herritar guztiak daude gonbidatuta Natur Eskola berritua ikustera"

Ingurumen Jardunaldiak batera ate irekiak antolatu dituzte natur eskolan, bertan egin diren birgaitze lanak erakusteko

**O**tsailarekin batera, Natur Eskolak antolatutako Ingurumen Jardunaldiak datoz. Eskolako eraikina eraberritzeko egin diren lanak erakusteko baliatuko dituzte. Bertako lantaldearekin izan gara.

#### Zer moduz eraikin berrituan?

Oso gustura. Ondo isolatuta da-goela ikusten da eta tenperatura aldetik askoz ere goxoagoa da orain. Argitasunean ere asko irabazi du, eta barnealdea dekoratzeko egokitu den harkaiztegiak eta ekosistema ezberdinen erreproduktzioek ere asko edertu dute eskola.

Isolamendu termikoa, komun lehorrak, fito-arazketa putzua, aerotermia... Birgaitze lanak bioeraikuntza kontzeptuetan oinarrituz egin direla kontuan

hartuz, eraikina bera baliabide pedagogiko gisa erabiltzeko aukera izango duzue, ezta?

Nahi genuke, bai, baina horretarako baliabideak falta zaizkigu. Eraikinaren isolamendu termikoa hobetzeko erabili den sistema, adibidez, interesgarria da, baina hori behar bezala azaltzeko fatxadako hormen sekzioa eta erabili diren material geruzak erakusten duen bloke bat behar dugu, eta ur zikinak garbitzeko fito-arazketa putzuaren funtzionamendua erakusten duten panel batzuk edukitzea ere oso lagungarria litzateke, baliabide didaktiko gisa erabiltzeko.

Gainerakoan, zer ikasten dute natur eskolara hurbiltzen diren ikasleek?

Naturaren kontserbazioa da gure lan pedagogikoa laburbiltzen

**4.500**  
inguru ikasle  
pasa ohi dira  
urtero Oñatiko  
natur eskolatik.

**Ikastetxeei  
zuzenduta dago  
natur eskolaren  
jardun nagusia,  
baina herri  
mailako  
beste edozein  
talderekin ere  
lan egiten dute:  
jubilatutaldek,  
Gaztetxea,  
errefuxiatuak...**

duen kontzeptu nagusia. Eta askotan esaten dugun moduan, zerbait zaintzeko ezagutu egin behar da aurrena, ezagutzen dugun hori gehiago estimatu eta maitatzen dugulako.

Beraz, gure lana da naturari buruzko ezagutza zabaltzea, eta hor barruan sartzen dira askotariko gaiak: landareak, animaliak, ekosistemak, hondakinen trataera... Eta horretarako, Oñati inguruan ditugun ekosistema eta habitat naturalak erabiltzen ditugu baliabide gisa heziketa lana egiteko. Askotan, ikastetxeen beharrei egokitutako programak prestatzen ditugu.

**Zein adineko haurrekin egiten duzue lan?**

3 urteko haurretatik hasi eta unibertsitate mailarainoko ikasleak jaso ohi ditugu. Adibidez, Magis-



teritza eskolako ikasleak etortzen zaizkigu, eta baita Batxilergo edo Lanbide Heziketakoak ere.

Gure jardun nagusia eskolei zuzenduta dago, baina herriko beste edozein talderen proposamenei erantzuten saiatzen gara. Hala, jubilatuekin lan egin izan dugu, Gaztetxeoekin ere bai, Larrañako errefuxiatuekin...

#### Zenbat ikasle jasotzen dituzue urtean?

4.500 inguru. Erdiak, gutxi gora behera, Oñatikoak dira, baina erkidego osotik iristen zaizkigu. Kultur etxean antolatzen ditugun erakusketetatik pasatzen diren ikasleak kontuan hartuta, 6.000 inguru izango dira.

#### Urtero bezala, Ingurumen Jardunaldi mamitsuak antolatu dituzue aurten ere.

Oñatiko natur eskolak 29 urte betetzen ditu aurten, eta Ingurumen Jardunaldien 28. edizioa izango da, oker ez bagaude.

Garbi izan genuen, hasiera hasieratik, natur eskola herri osoari zuzendutako zerbitzua izan behar zela; ikastetxeetara bakarrik mugatuta, hankamotz geldituko zela, eta horregatik hasi ginen ingurumen jardunaldiak antolatzen, naturarekiko kontzientzia eta sentsibilizazioa herri osora zabaltzeko bidea delako.

#### Zer azpimarratuko zenukete aurtengo jardunaldietatik?

Normalean ikuspuntu zientifikotik jorratu ohi ditugu gai ezberdinak, eta, aurten, lehen aldiz, filosofo bat ere gonbidatu dugu.

Zine-klub tartean emango dugun *Zumiriki* filma ere oso berezia da, eta, gainera, egilea bera ere bertan egongo da. ■

# INGURUMEN

J A R D U N A L D I A K

**Baso ekosistemak** eta hauengan **klima aldaketak** duen eragina aztertuko dute, besteak beste, Natur Eskolak antolatutako ingurumen jardunaldietan. **San Martingo** hariztiaren inguruan egiten ari diren azterlanaren ondorioak ezagutzeko aukera ere egongo da.

## HITZALDIAK (Kultur etxean, 19:00)



#### • OTSAILAK 15 (ASTEARTEA)

'Klima aldaketaren eragina XXI. mendeko basoetan'

**HIZLARIA:** JULEN ASTIGARRAGA, ekologoa

Klima aldaketak pagadien ustiapen modu ezberdinetan duen eraginaren inguruko ikerketa lana egiten ari da Julen Astigarraga oñatiarra, besteak beste Artia mendiko basoetako laginak hartuta.



#### • OTSAILAK 16 (ASTEAZKENA)

'Lurzorua: oinazpiko unibertso ezezaguna'

**HIZLARIA:** NAHIA GARTZIA, edafologoa (NEIKER)

Unibertso bat dugu oinazpian. Lurzorua planetako bioaniztasunaren laurdena hartzen du, pieza gakoa da karbonoaren zikloan, elikagai-iturri garrantzitsua da eta mehatxatuta dago.



#### • OTSAILAK 18 (OSTIRALA)

'Unidos persistimos: cómo sobreviven los competidores menos hábiles en la naturaleza'

**HIZLARIA:** JOAQUIN CALATAYUD, ekologoa

Mehatxuetatik babestu eta biziraun ahal izateko espezie ahulenen artean ematen diren elkarlaguntza estrategiez jardungo du Calatayudek.



#### • OTSAILAK 22 (ASTEARTEA)

'Walden gaur'. Thoreau-ren hausnarketak naturan

**HIZLARIA:** ANTONIO CASADO DE LA ROCHA, filosofoa eta EHUKo irakaslea

Deshazkundera eta bizitza sinple eta etikoago baten inguruan, Henry Thoreau-k (1817-1862) idatzi zuen liburuan jasotako teoriez jardungo du.

(hurrengo orrira)

**Mikel Egaña Urrutia**  
Aseguruak

**Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:**

|            |             |               |
|------------|-------------|---------------|
| ✓ Heriotza | ✓ Istripuak | ✓ Etxebizitza |
| ✓ Autoak   | ✓ Ontziak   | ✓ Aurrezkia   |
| ✓ Bizitza  | ✓ Osasuna   | ✓ Laborantza  |

Helbide: Motxon 5, behea  
638 16 79 84  
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**PINTURAS**  
**URBIA**  
MARGOAK

**Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15**



Zuhaitz baten bizitza nolakoa den, eta San Martinen gertatzen ari dena ezagutzeko aukera egongo da

**HITZALDI-IRTEERA / Otsailak 19 (10:00)**

## San Martingo Hariztia

Udalaren enkarguz, Kimubat enpresa eta Gabriel Iguñiz arborista San Martingo zuhaitzen eta lurzorua ekoiztearen azterketa egiten ari dira azken hilabeteotan. Zuhaitziaren kontserbazioa bermatu eta erabilera publikoak antolatzeke kudeaketa plan bat egitea da helburua. Bada, otsailaren 19an, azterlanaren lehen emaitzak ezagutzeko aukera egongo da. Lehenengo, azalpen teorikoa emango dute natur eskolan (10:00), eta ondoren irteera egingo da San Martin parkera, azalduko bertatik bertara ikusi ahal izateko. Herritar guztiei irekia.

## ARGAZKI ERAKUSKETA

• Otsailak 7-27 / Kultur etxean, egunero, 18:00-20:00

'Hegaztiak, bizi zantzuak'



Felix Calvo irundarraren argazki ikusgarriez gozatzeko aukera egongo da kultur etxeko erakusketa aretoan, otsailaren 7tik 27ra. Natura gaietan espezializatutako argazkilaria da Calvo, eta urte asko daramatza Euskadiko hezeguneetan pausatzen diren hegaztiei argazkiak ateratzen, eta pertsonen begientzat iheskorra diren momentu berezi horiek eskaintzen dizkigu. Inaugurazio egunean argazkilaria bertan egongo da

## IRTEERA

• Otsailak 20, igandea (9:00etan Sindikan)

'Iturrigorriko basoa, lurzoru eta aldaketa klimatikoa'

Julen Astigarragak (ekologoa) eta Nahia Gartzia (edafologoa) gidatutako ibilaldia. (Arantzazuko BUSean igotzeko aukera dago).

## ZINE-KLUBA (Kultur etxean)

• Otsailak 17, osteguna (20:00)

'La vida secreta de los árboles'

Zuz.: Jörg Adolph eta Jan Haft.


• Otsailak 24, osteguna (19:00)

'Zumiriki' (Zuz.: Oskar Alegria). Zuzendariaren aurkezpena egingo du eta zine-foruma egongo da.

## DOKUMENTALA (Kultur etxean)

• Otsailak 25, ostirala (19:00)

'Vivir entre volcanes'



Zumiriki

## ZUHAITZ FERIXIA

• Martxoak 5, larunbata (9:00, Foruen plazan)

Mintegi ezberdinetako zuhaitz eta landareak erosteko aukera egongo da goiz osoan zehar.

## ZUHAITZ EGUNAK

• Martxoak 6, igandea (10:00)

Zuhaitz landaketa. (Lekua zehazteke).

• Martxoak 13, igandea (10:00 Unaimendin)

Aloñako Lagunak taldekoekin elkarlanean.

## ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

## Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

# Elkarren arteko zubi berriak eraikitzen

## APP BERRIA

Herriko albisteak, agenda, sarrerak eskuratzeko aukera, unean uneko oharak, tramiteetarako atala... zure mugikorrean!



### ► Albisteak

'Berbia'-n argitaraturiko herri mailako albisteak aurkituko dituzu 'Albisteak' atalean.

android



### ► Agenda

Udalak eta herriko beste eragileek antolatutako ekitaldien berri izango duzu. Gainera, klik bakar batean hel zaitezke sarrerak online eskuratzeko plataformara.



**OÑATI**  
dabilen herria



### ► Udala

Hiru azpiatal ditu: udalaren mezu, ohar eta deialdiak barnebiltzen dituena; tramiteak telematikoki egiteko aukera eskaintzen duena; eta zerbitzuei buruzkoak azaltzen dituena.

iOS



### ► Ezarpenak

Jaso gura dituzun jakinarazpenak aktibatzeak aukera eskaintzen du.

**JAITSI EZAZU OÑATIKO UDAL APLIKAZIOA**







## EUROPAREN ETORKIZUNARI BURUZKO KONFERENTZIA

# "Garrantzitsua da herritarrek aukera aprobetxatzea, nahi duten Europari buruzko proposamenak egiteko"

Igor Filibi / EuroBasqueren Idazkari Nagusia

Europar Batasunak (EB) Europaren Etorkizunari Buruzko Biltzarra jarri zuen abian iazko martxoan. Europar Batasunaren geroa definitzea da helburua eta, horretarako, dei egiten zaio EBko herritar orori bere iritzia, kezka edo proposamena adieraz dezan gai ezberdinen inguruan: aldaketa klimatikoa, migrazioa, demokrazia, ekonomia, enplegua, hezkuntza, osasuna... EuroBasque-ko (Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua) idazkari nagusi Igor Filibik eman dizkigu Europa mailan abian den eztabaida demokratiko erraldoi honen inguruko argibideak.

**Zer da, zehazki, Europako Etorkizunari buruzko biltzarra?** Foro irekia da. Nahi duten norbako, elkarte, udal eta bestelako guztiek parte har dezakete, eta proposamenak eta hausnarketak egin. Europaren etorkizuna nolakoa izatea nahi dugun galdetzen digute, eta ekarpen guztiekin —batez ere gizarte zibilarena, eta, bereziki, gazteena—, azkeanean dokumentu bat idatziko

da. Gero, dokumentu hori oinarri hartuta, Europako eta Estatuko erakundeek, eta prozesuaren amaieran gobernuek, etorkizun horretan aurrera egiteko beharrezko neurriak adostuko dituzte, beharrezko erreformak proposatuz. Horixe dio Europako Parlamentuak, EBko Kontseiluak eta Europako Batzordeak egindako Konferentziaren deialdiak.



**IRITZIA EMATEKO**  
*Europar Batasunak egokitu duen plataforma digital eleanitzean eman daitezke iritziak*

### Zergatik antolatu da biltzar hau orain?

Bi azalpen mota daude. Lehenengoa, sakonagoa, Batasunak badakiela jauzi kualitatiboa egin behar duela bere integrazio politikoan, eta, horretarako, herritarren laguntza izan behar duela. Herritarrek babesa emango dizute soilik zer nahi duten galdetzen badiezu eta proiektua azaltzen badiezu.

Beraz, Europa erabat federala eraiki aurretik, partaidetza-mekanismoak hobetu eta sakondu behar dira. Hori beharrezkoa da Batasunaren legitimitatea handitzeko; izan ere, gero eta botere gehiago hartzen ari da, eta horrek herritarrei erantzun behar die.

Perspektibarekin ikusten badugu, hasierako eredu funtzionalago baten bilakaera logikoa da: hau da, merkatu bateratuan zentratua eta gobernuek teknikarien laguntzarekin gidatutako eredu batetik, Europa politiko eta, logikoki, demokratiko baterako bilakaera.

Bigarren azalpen mota bat ere badago: abagune politikoarena. Ezin dugu ahaztu konferentzia hau Frantziako presidentearen ideia izan dela, eta Frantziako hauteskundeak Konferentziaren amaierarekin batera egingo direla, eta, beraz, nolabaiteko onura atera nahiko diola.



## Zein dira Europak egun dituen erronka nagusiak?

Hainbat erronka dira, eta guztiak oso garrantzitsuak. Alde bate-tik, Europa biztanleria galtzen ari da, eta, horrekin batera, garrantzi ekonomiko eta politikoa munduan. Joera hori etengabea da azken hamarkadetan, eta azkartzen ari da azken urteotan. Kontua ez da Europak gauzak gaizki egin dituela, baina beste aktore batzuek are hobeto egin dituztela. Termino erlatiboetan, Europa ez da hain garrantzitsua mundu mailan. Mezua argia da: edo bat egiten dugu edo garrantzirik gabekoak izango gara hamarkada pare batean. Alemaniak eta Frantziak ere ezingo lukete beren bizitza- eta eragin-maila munduan bakarrik mantendu. Batasuna behar dute.

Beraz, Europako potentziek dimentsio nahikorik ez badute, pentsa dezakegu zer gerta- tzen den Belgika, Grezia, Zipre, Her-behereak edo Polonia bezalako herrialdeekin, Portugal edo Espainia ez esateagatik. Elkartzea ezinbestekoa da.

Europak ahots bakarrarekin hitz egiteko gai izan behar du, eta munduko gai nagusietan baturik jarduteko. Gero eta txikiagoak izateaz gain elkarre-kin aritzeko gai ez bagara, gure amaiera izango da. Gai batzuk adostu behar ditugu Batasuna-ren kanpo-politikan, AEBk, Txinak edo Errusiak jakin dezaten Europak zer defendatzen duen, eta jakin dezaten bat eginda eta konprometituta gaudela gure interesak eta balioak defendatze-ko.

Beste erronka bat subiranota-sunaren paradigma gaitzitzea da. Estatuko gobernuak ohituta daude Estatuaren osotasuna-ren alde erabakitzen eta horrek ez du funtzionatzen. Batasuna tresna bikaina da, baina beharrezkoa da estatuak erabaki guztiak monopolizatzeari uztea: barrura begira, politika eta erabaki asko deszentralizatuz, eta kanpora begira, Batasunaren esku utziz benetan, hark baitu masa kritiko nahikoa gai askotan



eraginkorra izateko.

Utzi egin behar zaio Batasunari bere erabakiak hartzen, Europaren ondasun komuna kontuan hartuta, eta ez soilik estatu bakoitzaren ustezko interes orokorren batura edo agregatua. Gobernuak badakite beraiek bakarrik ezin dituztela arazo asko konpondu (horregatik sortu zuten Batasuna), baina, aldi berean, erabaki garrantzitsu guztiak kontrolatzen jarraitzen dute, eta horrek blokeora garamatza. Bada garaia onartzeko Batasunarentzat erabakigarriak diren gaitetan, Batasunak gai izan behar duela guztien mesederako erabakiak hartzeko.

Puntu garrantzitsu honetan, iruditzen zait herritarrak beren gobernuak baino askoz prestatuago daudela hori onartzeko. Txertoen kasua adibide garbia izaten ari da. Europan txertoak erosi izan ez bagenu, Europako herrialde askok ez genuke behar adina txertorik izango, EB osoko erosketa-eskalari esker soilik konbentzitu baitzituzten fabrikatzaileak txertoak saldu ziezaguten. Hala ere, gobernuak hilabete askotan galarazi zuten. Ezin zituzten beraiek bakarrik erosi, baina EBk ere ez.

» Igor Filibi  
EuskoBasque

**Termino erlatiboetan Europa ez da hain garrantzitsua mundu mailan. Mezua argia da: edo bat egiten dugu, edo garrantzirik gabekoak izango gara hamarkada pare batean**



## Klima aldaketa eta digitalizazioa ere erronka nagusien zerrendan egongo dira, ezta?

Bai, noski. Klima-aldaketari aurre egiteko eta pertsona guztiekiko eredu benetan iraunkor eta solidario baterantz aurrera egiteko politikan sakondu behar dugu, eta onartu behar dugu horrek aldaketa garrantzitsuak ekarriko dituela, eta baita kostu elkartu bat ere, beharrezkoa baita.

Biztanleriaren zahartzea da beste arazo handi bat, eta oso konplexua. Europarrok gero eta seme-alaba gutxiago ditugu, eta ondorengo ezagatik bere buruaz beste egiten duen zibilizazioa izateko bidean gaude. Eta paradoxa handi bat gertatzen da: ez dugu seme-alabarik nahi (neurri batean, kontziliazio-zailtasunengatik eta bizitzaren kostuagatik, baina, neurri batean, baita familiar buruz ditugun ideiegatik eta geure bizitza eta errealaizazio pertsonalagatik ere), baina gure ekonomiak gero eta pertsona gehiago eskatzen ditu, baina, hala ere, ez ditugu nahi beste lekuetatik datozen pertsonak, eta emigrazioa arazo politiko bihurtu da jende askorentzat. Hau konpontzea ez da batere erraza izango.

Beste arazo bat ere aipatuko nuke, eta zera da: ez dugula behar bezala aprobetxatzen Batasuneko herrialdeetan dagoen talentua eta sormena. Ez dugu zaintzen talentu seniorra (esperientzia handiko profesionala) ez eta gazteena ere, ez diegulako proiektzio profesional nahikorik eskaintzen.

Haurren talentua ere ez dugu zaintzen. EBko herrialdeetako hezkuntza sistemak ez daude gaitasun handiko haurrak detektatu eta beraien potentzial guztia garatzeko behar den ingurunea eskaintzeko prestatuta. Gainera, neskato gehienak zientziatik eta teknologiatik aldentzen dituzten estereotipo eta rol sexistak mantentzen jarraitzen dugu, eta politika nahiz zuzendaritza postuetatik at uzten ditugu. Ez da zentzuzkoa zure biztanleriaren erdiari uko egitea. (➔)

Ezin dugu talentua alferrik galtzen jarraitu. Europak hausnarketa sakona egin behar du arlo horretan, lehiakortasunean aurrera egin ahal izateko.

### **Herritarrok, oro har, urrutiegi ikusten ditugu Europako erakundeak oraindik ere, ala aldatuz doa pertzepzio hori?**

Bitxia da azken urteotan gertatu dena. 2015ean krisi ekonomiko latza bizitzen ari ginen, eta, gainera, errefuxiatuen krisiarekin korapilatu zen, Europa lotsagarri uzten zuten irudi beldurgarriekin. Garai hartan, inkestek erakusten zuten herritarrek Europatik inoiz baino urrunago zeudela, Europaren aurkako alderdien hazkunde geldiezineko unea izan zen, eta, jarraian, Erresuma Batua EBtik atera zen. Komunikabide eta analista batzuek euroaren amaiera iragarri zuten, baita Europar Batasunarena berarena ere.

Eta bat-batean, dena aldatu zen. Europako Parlamentuak Batasunaren aldeko apustua egiten zuten dokumentu bat onartu zuen, autokritika handiarekin, baina Europa batuago baterantz aurrera egiteko asmo handiko proposamenekin.

Frantzian, oso garrantzitsua izan zen Emmanuel Macronen hauteskunde-kanpaina. Ordago politiko ausarta izan zen. Inork Europaz hitz egiten ez zuenean, horrek botoak kentzen zituela uste zutelako, Macronek etengabe hitz egiten zuten Europari buruz eta Batasuna indartzeko beharrari buruz.

XXI. mendean Frantziak, Batasuna gabe, ezin duela gauza handirik egin azaltzeko gai izan zen. Europaren subiranotasuna-



» **Igor Filibi**  
EuskoBasque

**Integrazio europarrak abantaila nabarmenak ekarri ditu iparraldeko eta hegoaldeko euskal herritarren arteko loturak indartzeko.**

... **Lurralde-lankidetzak errazten duen lege-esparru bat ere sortu da eta bertan eratu dugu Euroeskualdea**



ren beharraz hitz egitera iritsi zen. Non eta Frantzian, Estatuaren subiranotasuna asmatu zuen herrialdean! Eta funtzionatu zuen. Kalkulu guztien kontra, jendeak bere mezua ulertu eta saritu egin zuen. Ez da itzalik gabeko pertsonaia, baina aitortu behar da Macronen etorrera faktore garrantzitsua izan zela Batasunaren berreskurapen politikoan.

Oso adierazgarria da ordu-danik ia alderdi politiko batek ere ez duela Europar Batasuna desagertzea proposatzen duen boto-portzentaje txikirik. Orain erreforma proposatzen dute, guztiz zilegi baita demokrazia batean. Lehen Batasuna mito bat bezalakoa zen, jendeak horretan asko pentsatu gabe babesten zuten zerbait, demokraziarekin, ongizatearekin erlazionatzen zelako. Orain politizatu egin da, eta hori heldutasun politikoaren adierazle bat da. Estatuetan bezala, Batasunean ere politika desberdinei buruzko eztabaida politiko bizia dago, eta hori oso ona da.

Oso ona da, halaber, EBn, gure estatuetan ez bezala, alderdiak gai izatea gai garrantzitsuetan akordio handiak lortzeko. Tamalez, politika egiteko modu eraikitzaile honek ez ditu titular asko ematen, baina askoz eraginkorragoa da. Eta garai zailak iritsi direnean, hiritarrak konturatu dira Batasunak askoz gehiago egiten duela gure ongizatearen alde, iraganeko bandera edo lorpenek baino.

Brexit-aren kasuak ere asko lagundu du daukaguna baloratzeko, eta hori inkestetan islatzen da. Askok igo da Batasunari emandako babesa, eta

Europako Parlamenturako azken hauteskundeetan ere gora egin zuen parte-hartzeak, eta Europa batuago bat nahi duten alderdien alde bozkatu zuen gehienbat.

### **Merezi al du etorkizuneko Europa definitzeko ireki den prozesu honetan parte hartzeak?**

Demokrazia batek funtziona dezan, herritarrek parte hartzeko eskubidea izateaz gain, benetan parte hartu behar dute, beren ideiak eta proiektuak adieraziz. Zenbat aldiz entzun dugu erakundeak herritarrengandik urrun daudela? Bada, orain, Europar Batasunak foro bat sortu du, non bere iritzia eman nahi duen edonork eman dezakeen.

Illo horretan, oso garrantzitsua da Europar Batasunak ulertzea gizartera ireki behar dela. Baina, era berean, garrantzitsua da herritarrek aukera aprobetxatzea eta parte hartzea, nahi duten Europari buruzko proposamenak egiteko gai izatea. Esperientzia hau arrakastatsua bada, Europako demokrazia hobetzeko lorpen handia izango da. Herritarrek parte hartzen ez badute, irekitzen diren foroak erabiltzen ez badituzte, horrek argudioak emango dizkie politikariei eta adituek protagonismo osoa izango duten demokrazia-eredua defendatzen dutenei.

Nire ustez, merezi du parte hartzea eta XXI. mendeko Europar Batasuna eraikitzen laguntzea. Gero, kasurik egiten ez badigute, kexatu ahal izango gara, eta arrazoiz, baina saiatu egin behar dugula uste dut, mekanismo perfektua ez dela badakigun arren; izan ere, europazaleok izan gara lehenak Kon-

**EGUR-LAN**  
AROSZTEGIA  
LIMABAR S.A.L.  
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com  
www.egur-lan.es

**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 8 - 20560 oñati  
www.sanmiguel.coop



ferentzia-eredu hau kritikatzeko, baina, hala eta guztiz ere, parte hartzen ari gara, garrantzitsua iruditzen zaigulako arrakasta izatea eta herritarren proposamen asko sortzea.

**Euskadiko alderdi nagusiek ere (EAJ, Sortu) Europar ja-  
rri dute fokua burujabetzaren  
inguruan plazaratu berri di-  
tuzte txostenetan. Laburbil-  
duz, erabakitze eskubidea  
Europako legedian instituzio-  
nalizatu beharko litzatekeela  
adierazi dute.**

Gai honen inguruan alderdi po-  
litikoek jarrera desberdinak di-  
tuzte eta, jakina denez, ez da  
erraza akordio zabalak lortzea.  
Alderdi batzuek uste dute gai  
horri buruzko Europako araudi  
bat ezartzea baliagarria izan  
daitekeela eta desblokeo poli-  
tikoa erraztu dezakeela; beste  
batzuek, berriz, uste dute gai  
hori Estatuan bertan adostu eta  
konpondu behar dela.

Nolanahi ere, galderaren  
fokua zabalduz, esan daiteke  
Europar Batasuna euskal auto-  
gobnuaren dimentsio nagusi  
bihurtu dela, eta etorkizunean  
esparru politiko eta legalaren  
balizko erreforma batean, ziurre-  
nik Europar Batasunari buruzko  
lege-esparruaren atal oso bat  
sartuko da, integrazioak esku-  
men-esparrua eta Euskadik EBN  
duen parte-hartze politikorako  
moduak zenbateraino aldatu di-  
ren erakusten duena.

Bestalde, gaineratu nahi nuke  
integrazio europarrak abantaila  
nabarmenak ekarri dituela ipa-  
rraldeko eta hegoaldeko euskal  
herritar guztien arteko loturak  
indartzeko, mugak lausotuz  
(Schengen eremua) eta trukeak

## JARDUNALDIAK ETA LIBURU BAT

### Europari buruzko gogoeta egiteko

**EuroBasquek**, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, interes handia erakutsi du euskal gizarteak eztabaida-prozesuaren berri izan dezan eta Konferentzian parte har dezan, eta interesa duten pertsona guztientzat irekita egongo den lau jardunaldiko ziklo bat antolatzen ari da. Horietako batean parte hartu nahi duenak **www.5retos1europa.eurobasque.eus** webgunean aurki dezake informazio guztia.

#### JARDUNALDIAK ETA LIBURUA

Lehenengo jardunaldia ekainaren 22an egin zen, eta EBren Next Generation funtsak izan zituen hizpide; bigarrena, berriz, Donostian burutu zen, azaroaren 22an, autonomia estrategikoaren kontzeptua eta EBren kanpo-politikaren inguruan. "Orain, otsailaren 7an, Europar Batasuna sortu zuen Maastrichteko Ituna sinatu eta 30 urte zehatzetara, Euskadik eta beste eskualde batzuek EBko gobernantzan duten zereginari buruz eztabaidatuko dute Gasteizen. Azkenik, martxoan, laugarren jardunaldia EBko hizkuntza-aniztasunaren, kultura-aniztasunaren eta abarren erronkari helduko dio Bilbon. Oraindik garaiz dago jardunaldietan parte hartzeko interesa duen edonor. Bestela Europako Batzordeak gaitu duen plataforma digital eleaniztunean (<https://futureu.europa.eu/?Locale=es>) bertan ere egin daitezke ekarpenak zuzenean", azaldu digu Filibi jaunak.

Jardunaldi ireki horiez gain, EuroBasque liburu bat argitaratzear dago, non 70 erakunde, akademiko, elkarte, GKE eta abarrek baino gehiagok Europaren etorkizunari buruz beren ikuspuntutik hausnartzen duten. "Liburuak panoramika interesgarria eskaintzen du, gure herria bezain anitza eta anitza, lurraldeetatik, hirietatik, sektoreetatik, ideologietatik eta Europari buruzko pertzepzioetatik begiraturik. EuroBasquek Europako eztabaida-prozesu honi egindako ekarpen handienetako bat da. Testu laburrak dira, eta egileei proposamen zehatzak egiteko eskatu diegu, Konferentziari ekarpenak egiteko. Bertan, Konferentziaren osoko bilkuran, euskal presentzia ere handia izango dugu, eta espero dugu, ahaleginak batuta, euskaldunen ikuspegia Bruselara iristea, eta Europako eztabaida handi honetan laguntzea" adierazi du EuskoBasqueko idazkari nagusiak.

erraztuz moneta bakarrari esker (euroa). EBk ere lurralde-lankidetzara errazten duen lege-esparru bat sortu du, eta bertan sortu dugu Euroeskualdea. EAEk, Nafarroak eta Akitania Berriak osatzen duten erakunde honek (Ipar Euskal Herriko lurraldeak barne hartzen dituena) elkar ulertze eta konfiantza giroa sortu du, eta, horri esker, proiektu estrategiko bateratuak egin ahal izan dira.

Azkenik, gaur egun, mugi-

mentu interesgarri bat sortzen ari da eskualde batzuetan (EBko argotean, estatuak ez diren eragile politikoak dira), estaturik gabeko nazioek eta legeagintza-eskumenak dituzten eskualdeek osatua, R-LEG izeneko, eta eztabaida serio bat bultzatzen ari da errealitate politiko horiek EBN hobeto nola egokitu daitezkeen jakiteko. Horri buruz hitz egingo dugu hurrengo jardunaldian, Gasteizen. ■



M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

## HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIENTAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LENIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEAK

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77



# BOLUNTARIOTZA

## BIDAIATZEKO BESTE MODU BAT

Joseba Yarzak zortzi hilabete daramatza ertamerikan bioaniztasuna babestu eta animaliak berreskuratzeko proiektu ezberdinetan laguntzen. Panama eta Costa Ricako oihanetan bizi diren indigenekin elkarbizitzen ere izan da

Iazko ekaina hasieran abiatu zen Oñatitik, aurre-erretiroa hartu eta hilabete eskasera. "Munduan zehar bidaiatzea izan da beti nire ilusioa, eta pentsatu nuen oraintxe zela horretarako momentu egokia" azaldu digu Joseba Yarzak (Oñati, 1961) Nikaraguako *Telica* sumendiaren magaletik.

Izan ere Nikaraguan eman du azken hilabetea bidaiari oñatiarrak, baina Josebaren abentura hau Panaman hasi zen, duela zortzi hilabete, *Adventure Volunteer* GKEaren eskutik.

Nazioartean boluntariotza programa ezberdinak ditu *Adventure Volunteer* erakundeak, bai arlo sozialean eta baita ingurumen mailan ere, eta, zehazki, Panamako hiriburutik gertu dagoen Summit parke botanikoan aritu da Joseba boluntario gisa. Landare tropikalen inguruan ikertzeaz gain, zauritutako edo arriskuan dauden animaliak jaso, zaindu eta bere oneratzeko saiatzen dira Summit parkean, eta bertan jardun du Josebak hiru hilabete, guacamayo, tximino, loro, jaguar, puma eta beste hainbat animalien

artean. "Berrehundik gora animalia daude parkean, eta horientzako janaria prestatu (bakoitzak bere dieta dauka), banatu, beraien bizilekuak garbitu, mantentze lanak egin eta albaitariei laguntzea izaten zen nire egitekoa. Goizez egiten genuen lan, bost bat orduz, eta arratsaldeak eta asteburuak libre, inguruak bisitatzeko".

### BASO PRIMARIOAK BABESTEN

*Adopta Bosque Panamá* (ADOPTA) gobernuz kanpoko erakundeak duen zentroan hartu zuen ostatu Josebak. Panamako baso primarioak erosi, arriskuan dauden ekosistemak babestu, eta ingurumen kontzientzia zabaltzeko lana egiten du ADOPTAk, eta hauen lana ere bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen Josebak. "Herrialde ezberdinetako (Estatu Batuak, Mexiko, Venezuela...) biologia ikasle eta ikerlari asko pasatzen dira zentro horretatik ikerketak edota praktikak egitera, eta, egia esan, oso oso aberasgarria izan da niretako jende hori guztiori ezagutzea eta beraien proiektuetan parte hartzea".

### INDIGENEKIN BIZITZEN

ADOPTA elkarteko kideei esker Darién eskualdeko *Emberá* etniako indigenekin bizitzeko aukera ere izan du Josebak, aspaldiko ametsa egi bihurtuz. "Panama eta Kolonia arteko mugan dagoen lurraldea da Darién. Panamerikar errepidea bitan zatitzen duen muga naturala da. Bioaniztasun aldetik munduko lekurik aberatsenetakoa dela esaten dute, baina oso zaila da bertako oihan itxietan ibiltzea. Aspalditik neukan horra iristeko gogoia eta, zorionez, bertako oihanean bizi den komunitate baten egunerokoa ikusteko aukera izan nuen. Kaparrek eta eltxoek janda amaitu nuen, baina, hala ere esperientzia zoragarria izan zen naturarekin bat eginda bizitzea".

### ITSAS DORTOKAK BABESTEN

Summit parkeko boluntariotza amaitu ostean, itsas dortoken kontserbaziorako proiektu batean jardun zuen Josebak beste hiru hilabetez, Panaman bertan, Veraguas eskualdeko *Refugio de Anidación de Tortugas de Playa Mata Oscura*



zentroan. "Panaman oso errotuta dago dortoken arrautzak jateko ohitura (gizentasunerako ona omen), hainbat espezie desagertzeko arriskuan egotera. Dortokek hiru urtean behin ipintzen dituzte arrautzak hondartza berean, edo inguruan. Urtean hiru edo lau errunaldi egin ditzakete, eta bakoitzean 50-120 inguru arrautza ipintzen dituzte. Beraz, gure lana izaten zen gauez patruilak egitea hondartzan, eta dortokek ipinitako arrautzak jaso eta haztegia eramatea, eta 50 bat eguneko inkubazioaldiaren ostean itsasoratzen laguntzea".

Panaman egoteko sei hilabeteko baimena amaitzen zitzaionez, azaro bukaeran Costa Ricara joan zen, eta *Adventure Volunteer* elkartearen bidez, Conte Burica eskualdek oihanean bizi diren *Nhgobe* etniako indigenak ezagutzeko aukera izan zuen. "Leku zoragarria da, baina oso zaila eta gogorra bertara iristea; ia 9 orduko ibilaldia egin behar izan nuen, lokatz artean gora eta behera. Hamabi egun pasa nituen bertan eta oso esperientzia ederra izan zen. Bere arbasoen ohiturak, kultura eta hezkuntza bizirik mantentzen dituzten herriak dira, bakean eta armonian bizi direnak naturarekin eta inguruko herriekin". Turistentzat prestatzen ari diren etxetxo batzuk prestatzen lagundu zien Josebak.

### NIKARAGUAN BARRENA

Panamaraz itzuli ostean, maleta prestatu eta Nikaraguara joan zen Joseba, Summit parkean egindako lagun batzuekin. Hauetako baten alabaren ezkontzara ere gonbidatu zuten. Gabonak ere bertan igaro zituen, eta Managua hiriburuaz, gain, Nikaraguako erreserba naturalak eta, besteak beste, bizirik dauden sumendiak (Masaya, Telica, Momotombo...) bertatik bertara ikusteko aukera izan zuen.

Urtarrilaren amaieran Costa Ricara joatekoa zen, Summit parkean ezagututako albaiari espainiar batekin, animalien babeserako beste zentro batean



Embera (Panama-Kolonbia) eta Nhgobe (Costa Rica) etnietako indigenekin bizitzeko aukera izan du Josebak



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



laguntzera. "Gustatuko litzaidake primatteen eta beste animali basatiagoekin (krokodiloak, pumak, jaguarrak...) lan egitea, baina leku batzuetan titulazioa eskatzen dute, eta ez da erraza sar-tzea".

Oraingoz ez dauka Oñatira bueltatzeko presarik. "Behin honaino etorrita! Animoa alda daiteke egun batetik bestera, baina oraingoz gogoia daukat hemengo lekuak eta jendea ezagutzen jarraitzeko. Panamara ere bueltatu nahi dut, leku asko ditut-eta ikusteko".

Esperientzia oso aberasgarria izaten ari dela aitortu digu. Boluntariotza programaren bidez jende, proiektu eta leku asko ezagutzen ari da eta, batez ere, bioaniztasun mailan aurkitu duen aberastasunak txunditu du. "Mendian asko ibiltzen naiz ni Oñatin, naturarekin harremanetan bizi naizela esan daiteke, baina, adibidez, ADOPTA erakundeak kudeatzen duen Cerro Chucantí basora joan nintzenean negarrari eman nion hango aberastasuna eta hango edertasuna ikusita. Herri indigenak oso kezkatuta daude naturan gertatzen ari denarekin, eta gu, aldiz, sortu dugun burbuila artifizial batean bizi gara, gero eta diru gehiago irabaztea beste helburu barik, naturari bizkarra emanda, eta ez dut uste bide zuzena denik".

Lehenago ere ibilia da Joseba munduan zehar: Maroko, Kenya, Jordania, Yemen, India, Nepal, Vietnam, Thailandia... Ezkon bidaian ere Perura joan zen eta Amazoniako oihanean 'galdutako' herrixka batean igaro zituen hamabost egun. ■



Ezkerreko irudian, Refugio de Anidación de Tortugas (Costa Rica) zentroan hazitako itsas-dortoko txikiak eskutan dituela ageri da Joseba.



Eskuman, Nikaraguako Masaya sumendira (bizirik dagoen ertamerikako sumendirik handiena) igotzen



Summit parkeko animaliak elikatzea eta beraien bizilekuak garbitzea zen Josebaren egitekoa Summit parkean. Tximinoak esker ona adierazten zion egunero



**Gualbi**  
asesores

*Bezeroen beharrei erantzuteko prest!*

**Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea**  
**Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza**  
**Merkataritza • Abokatuak**

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)





Erdigunetik 2km-tara, kalitate goreneko 6 logela (banakoak edo bikoitzak),  
2 suit hidromasaje eta sukaldearekin eta logela laukoitz bat.  
Produktu naturalekin prestaturiko afari eta gosari osasungarriak.



Garagaltza, 21 · 20560 Oñati · Gipuzkoa · T. 943 783657 / 646 023570  
info@casaruralarregi.es ■ [www.casaruralarregi.es](http://www.casaruralarregi.es)

# Covid ziurtagiriaren kontrako ekimena sortu da Oñatin

'ESKUBIDEEN ALDE-OÑATI' taldea sortu da gurean, guztiz "diskriminatzailea" eta "baztertzalea" jotzen duten Covid pasaporteari ez esateko. Oinarri legalik eta zientifikorik gabeko neurria dela diote.

Abenduan 'Covid pasearen inposaketa' salatzeko Donostian burutu zen manifestazioak hauspotuta hasi ziren batzen QR ziurtagiriaren kontra dauden hainbat herritar, eta, dagoeneko, ehundik gora lagun biltzen ditu 'Eskubideen Alde-Oñati' taldeak. Urte hasieran Arrasaten egin zen manifestazioan parte hartu zuten, beste herri batzuetan burutu izan diren elkarretaratzeak ere babestu dituzte, eta pasa den larunbatean Oñatiko Foruen plazan egin zuten elkarretaratzea.

Covid ziurtagiriaren aplikazioaren kontra daudela diote, oinarritzko hainbat eskubide urratzen dituelako: berdintasunarena, intimitatearena, mugitzeko eta biltzeko eskubideak, toki publikoetara sartzeko edonork duena... "Azken batean, derri-gorrezkoa ez den zerbait (txertatzea) nahitaezkoa izan dadin herritarrek behartzeko bide bat dela ikusten dugu, oinarritzko eskubide asko urratuta bada ere" azaldu digu Edurne Usandizagak.

"Kutsatzeak murriztea eta pandemiaren hedapena kontrolatzea zen Covid ziurtagiria indarrean



Mikel Iraeta eta Edurne Usandizaga, 'Eskubideen Alde-Oñati' taldeko kideak

jartzearen helburua, Jaurilaritzak berak adierazi zuenez, eta oso garbi geratu da ez dela batere eraginkorra izan, Covid pasaportea exijitzen duten hainbat erkidegotan (Euskadi eta Nafarroa tartean) intzidentzia tasa handienetakoa izan baitute, eta, hala ere, gizartearen zati bati ospitaleko, kiroldegiko, erresidentziako, zine aretoko eta beste zenbait leku eta jardueratako ateak ixten zaizkio, herritarren artean zatiketa eraginez" salatu

**Covid  
ziurtagiria  
onartzen  
badugu,  
akabo gure  
eskubide asko**



du Mikel Iraetak.

Bereziki larria iruditzen zaie erabakitzeak ahalmenik ez duten gaztetxoekin gertatzen ari dena; "ezin dute kirolrik egin lagunekin, ezin dira zinera joan... Zein zigor klase da hori? Zein gizarte eredu ari gara eraikitzen? Ez al gaude gizarte inklusibo eta parekide baten alde? Ezin da ahaztu, gainera, haur horietako askok immunitate naturala garatu dutela. Beldurtzeko modukoa da, benetan".

## KONTROL NEURRIA

Covid ziurtagiriak ez dauka, beraien ustez, oinarri zientifikorik, ezta legalik ere, eta ez diote zentzurik ikusten "hain murriztailea" den neurri bat indarrean edukitzeari. "Osasun sailburuordeak berak adierazi zuen moduan, hau ez da osasun publikoari dagokion neurri bat, neurri zibiko bat baizik, gizartea kontrolatuta edukitzea helburu duena".

Ez dute uste helburu errealista denik gizartearen %100 txertatuta egotea. "Gaur egun, Euskadi mailan, xede-populazioaren %90 baino gehiago txertatuta dago jada, eta, hain zuzen, horregatik uste dugu gizartearen zati bat baztertu eta diskriminatzen duen neurri honek ez daukala inolako zentzurik".

Ez daude txertatzearen kontra (taldean badaude txertatutako pertsonak ere), baina bai ziurtagiria bezalako neurri baztertzailen aurka, eta Oñatiko udalari ere dei egiten diote Covid ziurtagiria eskatzeari utz diezaion. "Bere momentuan erabaki zuen larunbatetako azoka egiten jarraitzea, Jaurilaritzaren dekretuak kontrakoa bazioen ere, segur-

**ARANBURU  
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTITAKO  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**



**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40





Urtarrilaren 29an Oñatin egindako elkarretaratzeko irudia

## Ez gaude txertatzearen aurka, baina ez zaigu bidezkoa iruditzen derrigorrezkoa ez den zerbaitegatik gizartearen zati bat baztertzea

tasun neurriak hartuta gauzak normaltasunez egitea posible zela erakutsiz, eta orain ere bide beretik jo dezakeela uste dugu. Azken batean, ziurtagiria eduki ala ez, txertatuta egon ala ez, pertsona bat esparru itxi batera sartzen denean berdin berdin kutsatu ahal izango da, eta berdin berdin kutsatu ahal izango ditu besteak. Beraz, osasun neurriak aplikatu bai, baina inor diskriminatu barik eta oinarritzko eskubideak errespetatuz".

### SALAKETAK EPAITEGIAN

Leku eta zerbitzu publikoetan ematen den inkongruentzia ere salatzen dute 'Eskubideen Alde- Oñati' taldeko kideek. "Espazio jakin batean sartzeko ziurtagiria eskatzen zaio herritarrari, eta, aldiz, bertako langilea ez dago derrigortuta

ziurtagiria indarrean izatera".

Dagoeneko hainbat salaketa ere jarri dituzte Bergarako epaitegian, eta gogorarazten dute zerbitzu publiko bateko harreraren lan egiten duen pertsona zibilak ez daukala autoritaterik identifikazioa eskatzeko. "Hau ez da egoera eroso inorentzat, ez langileentzat, goitik datorkion agindu bat betetzen ari direlako, ezta guretzat ere, baina guk ere geure eskubideak defendatu behar ditugu".

Amaitzeko, dei egin nahi diete herritarrei gogoeta egitera gai hauen inguruan, eta pentsa dezatela zer galtzen dugun Covid ziurtagiria bezalako neurriekin. "Hau onartuz gero, akabo gure eskubide gehienak. Ezin dugu hau onartu, ez geuregatik eta ez gure ondorengoengatik ere" ■.

## EMAKUMEEN JABETZE ESKOLA

### Mendi orientazio ikastaroa

Jabetze Eskolaren baitan, emakumeei zuzendutako mendi orientazio tailerra eskainiko da otsaila eta martxoan zehar, Kirolaren Zientzietan lizentziaduna den Patri Espinarrek gidatuta.

Norberak erabakitako lekura autonomia osoz joateko ibilbideak diseinatzen ikastea, eta horretarako baliabideak eta gaitasunak eskuratzea da helburua. Mendian segurtasunez ibiltzeko orientazioko oinarritzko ezagutze teoriko-praktikoak landuko dira bertan.



Guztira sei saio izango dira (otsailak 25 eta 26, eta martxoak 4, 5, 12 eta 19), Bidebarrieta kaleko Euskaldun Berria gelan. Matrikula, 20€. Udaletxeko HAZ bulegoan edo [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean eman daiteke izena, ikastaroa hasi baino 8 lehenagora arte. Informazio gehiago, udaleko Berdintasun sailean.

### Arrasate-Oñati-Zumarraga autobus linean aldaketak

Udanako errepidean egin beharreko lanak direla eta, Lurraldebusen DG04 linean (Arrasate-Oñati-Zumarraga) aldaketak egitea erabaki du Foru Aldundiak. Hala, DG04 lineak Oñati eta Arrasate arteko bidea soilik egingo du eta DG04B lineak Arrasate-Legazpi-Zumarraga artekoa, Deskargako autobiatik. Oñati eta Zumarraga edo Legazpi arteko bidaia egin nahi duten bidaiariek ez dute autobus aldaketarik egin beharko, baina aurrena Arrasateraino joan beharko dute eta, ondorioz, 50 minutu beharko dituzte Oñatitik Zumarragarainoko bidea egiteko. Ikusi ordutegiak QRan.



ZURE ESTILOA ISLATZEKO ARMAIRUA,  
ZURE IDEIAK ETA ZURE EDERTASUNA

Niko Markinez izan da Volcom markako arroparen  
zozketan 100€-ko saria eraman duen bezeroa  
**ZORIONAKI!**

Kale Barria 17 • T. 943 08 81 84  
[info@candeluka.eus](mailto:info@candeluka.eus) • [www.candeluka.eus](http://www.candeluka.eus)



Lamiategiko zubia

## Auzo-bideetako hainbat zubi konpondu ditu udal brigadak

Udal brigadako langileek herri-altzari, eraikin eta ondasunen mantentze lana egiten dute, bai herri gunean eta baita auzoetan ere. Azken asteotan auzoetan ibili dira eta, besteak beste, hormigoizko hesiak berritu dituzte Lamiategin (Errotatzoko bidean dagoen zubian), Elorregin (Errotarako bidean) eta Zubillagan (Matromai sarrerako zubian). Herri guneari dagokionez, Kale Barrian eta inguruetan solte edo apurtuta zeuden zoruko losak aldatu eta finkatzen ere aritu dira.



Matromai eta Elorregiko zubiak

## Oñatiko biztanle kopuruak 11.500eko langa gainditu du

Urtarrilaren 1ean 11.518 lagun zeuden Oñatin erroldatuta, urtebete lehenago baino 90 gehiago. Iaz (2021) 90 haur jaio-berri erroldatu ziren Oñatin, eta bertan erroldatuta zeuden 127 herritar hil ziren. Baina kanpotik 127 lagun etorri ziren gurera bizitzera, eta, horrenbestez, Oñatik biztanleria irabazi du. Egun Oñatin erroldatutako 11.518 lagunetatik 5.803 emakumezkoak dira eta 5.715 gizonezkoak.

**Gezalaga**  
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



## Azkoagaineko belar artifiziala aldatzeko proiektu teknikoa enkargatu du Udalak

2008an eraberritu zen Azkoagain futbol-zelaia. Belar naturala kendu eta belar artifiziala jarri zen, besteak beste, eta, dagoeneko, bere bizitza-balioa bete duenez eta egoera txarrean dagoenez, belar artifiziala aldatzea erabaki du Udalak. Belarra aldatzearekin batera, lurzorua duen drainatze arazoa ere konpondu behar da lehenik, eta lan horiek egiteko proiektu teknikoa enkargatu dio Udalak Injelan S.L. enpresari 8.107 (BEZ kanpo) eurotan. Otsaila amaierarako prest egongo da proiektua, eta udalaren asmoa da lanak uztaila eta abuztuan zehar egitea. Aurtengo udal aurrekontuetan 360 mila euroko diru atala bereizi da lan hauek egiteko.

## Azken euriteek eragindako kalteak konpondu ditu udalak

Azaro eta abendu hasierako euriteek auzo-bideetan eragindako kalteak emergentzia izaeraz konpondu ditu Udalak. Errotatzoko baserrira doan bidea eta Errekalde baserritik Torretxebarrira doana moztuta geratu ziren, argazkietan ikusten den moduan, lur-jausien ondorioz. Errotatzoko bidea konpontzeko lanak Exc. Arrasatek egin ditu 21.275 eurotan (BEZ barne) eta Torretxebarriko konponketak Lurkide enpresari enkargatu dizkio Udalak 15.700 euro ingurutan.



Torretxebarrirako bidea



Errotatzoko bidea



# garmendia tejas



Bikuña Jauregia (Legazpi)



Matia Fundazioa (Usurbil)



Enparan Dorretxea (Azpeitia)



Zabaleta Jauregia (Urretxu)



Mañarte baserria  
(Eskoriatza)

**Era guztietako teilatu eta egurrezko egiturak**

25 urtetik gorako esperientzia daukagu eta urtean 150 obra baino gehiago egiten ditugu. Euskadin eta inguruetan erreferentzia gara estalkiak eta fatxadak eraiki eta birgaitzeko lanetan.

Basozabal Industriadea 5 • N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

[www.garmendiatejas.com](http://www.garmendiatejas.com)



Azkar egiten  
dugu lan



Kalitate-prezio  
onena.



Osoko  
zerbitzua

# Adinekoentzako Eguneko Arreta Zerbitzuaren araudiari buruzko kontsulta publikoa jarri du abian Udalak

Aurten bertan martxan jarri nahi den zerbitzu berria da. Asmoa da Pake Lekun eta Lagun Lekun eskaintzea zerbitzua, asteko egun eta ordu jakin batzuetan.

65 urtetik gorako eta mendekotasun arriskuan edo lehen mailako mendekotasuna duten pertsonen, eta isolamendu edo bakardade egoeran dauden adineko herritarrei zuzendutako zerbitzua da **Eguneko Arreta Zerbitzua**. Astean bizpahiru egunetan eta bizpahiru orduz emango litzatekeen zerbitzua da, eta ordu horietan erabiltzaileen gaitasunak estimulatzeko jarduerak eta ariketa errazak egingo dira, adituen gidaritzapean.

Gizarte zerbitzuen euskal sistema arautzen duen 12/2008 Legeak ezartzen du tokian tokiko udalei dagokiela Eguneko Arreta Zerbitzua eskaintzea, eta Oñatiko udalak adierazi du aurten bertan zerbitzu hau martxan jartzeko asmoa.

Horretarako, zerbitzua arautu beharra dago, helburuak definitu eta zerbitzuaren funtzionamenduari lotutako funtsezko alderdiak finkatzeko: eskainiko diren prestazioak, erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak, zerbitzua eskuratzeko baldintzak eta prozedura... Udala hasita dago araudia lantzen, eta Administrazio Publikoen 39/2015 Legeak ezartzen duena betetz, kontsulta publikoa egitea erabaki du, herritarren ekarpenak jasotzeko asmoz. Otsailaren 3ra arteko epea dago horretarako, udalaren webgunean.

Uda aurretik jarri nahi du zerbitzua martxan Udalak, eta asmoa da Pake Lekun eta Lagun Lekun eskaintzea zerbitzua asteko egun eta ordu jakin batzuetan.



## Harrobiaren handitzea ekiditeko aldaketa onartu du Udalak hiri antolaketarako arauetan

Indarrean dauden Oñatiko Hiri Antolaketarako Arauak 2006an onartu ziren, baina handik gutxira Aizkorri-Aratz natur parkearen izendapena etorri zen, eta baita bertako Natur Baliabideak Antolatzeko Plana ere. Gainera, gune hori Natura 2000 Sarearen barruan dago.

Beraz, hori guztiori kontuan hartuta, Udalak beharrezkotzat jotzen du erauzketa jarduerak (harrobia) garatzeko aukera mugatzea, eragin kaltegarria duelako babestu beharreko habitat natural horren, eta bertako flora eta faunarengan.

Horregatik, Hiri Antolaketarako Arauen hiru artikulua aldatzea erabaki du Udalak. Zehazki, Lurzoru Urbanizaezineko eta Babes Bereziko zonetako erabilera onargarri erreferentzia egiten dieten 11, 65 eta 74 artikulua.

Iazko iraileko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzak aldaketa puntual horien hasierako onarpena egitea, eta jende agirian egon den hiru hilabeteko epean Aridos Aloña enpresak aurkeztutako (epe kanpo) alegazio bakarra gaitzetsi ondoren, Hiri Antolaketarako Arauetan egindako aldaketa puntuala behin behinean onartzea erabaki zuen udalbatzak urtarileko osoko bilkuran, aho batez.

Orain, erabaki horri dagokion espediente Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolakuntzarako Batzordeari igorriko dio, honek dagokion txostena egin dezan.

## Hirugarren transformagailua instalatu du Oñargik, auto elektrikoen beharrak aurreikusita

Etorkizunean argindar beharrak gora egingo duela aurreikusita, transformagailu berria instalatu du Oñargik Bustinzuloko estazioan. Orain arte bi transformagailu nagusi izan ditu Oñargik; argindar enpresaren energia fluxua bideratzen du batek, eta erreserbakoa da bestea, gerta litezkeen arazo edo matxuren aurrean, automatikoki lanean sartzen dena, herriko argindar hornidura ziurtatzeko. Oraingoz ez dago hirugarren transformagailuaren beharrik, baina auto elektrikoen kopurua gora doala ikusita eta horrek argindar beharra areagotuko duela kontuan hartuz, instalazio-azpiegiturak sendotzea erabaki du Oñargik. Urtean 320.000 euro inguruko inbertsioak egiten ditu Oñargik, banaketa sarearen mantenu lanetan eta identifikatzen diren erroka berriei erantzuna emateko.

 **Mekalki**  
S. Coop. mekanizatuak  
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | [www.mekalki.es](http://www.mekalki.es)



## ARAOTZEKO OSTATUA ustiatzeko interesa dutenek instalazioak ikusteko aukera izango dute



Araotzeko eskola zaharra os-tatu bihurtzeko lanak azken txanpan sartuta daude. Obrak amaituta, lau aparta-mentu turistiko, sukaldea eta jatetxea izango dituen erai-kina ekipatzen hasiko dira datozen asteetan.

Hurrengo pausua, ostatua-ren ustiaketa lehiaketara ateratzea izango da (baldintzak eta esleipen prozesua lan-tzen hasita daude Udala eta auzotarren artean), baina, bien bitartean, instalazioak erakusteko prest daude au-zotarrak. Interesa dutenek udaleko Landa Garapena sailera deituta edo [jaione@onati.eus](mailto:jaione@onati.eus) helbidera idatzita, egin dezakete eskaera

## Debagoieneko Antzerki Plataforma aurkeztu dute ofizialki



Elorregiko biribilgunean emandako prentsaurrekoaren bidez aurkeztu zen astelehenean Debagoieneko Antzerki Plataforma (**DAP**). Euskarazko kulturari eta, bereziki, antzerkiari gure gizartean dagokion tokia eta garrantzia emateko helburuarekin sortu dute DAP, eskualdeko herrietan antzerki arloan diharduten hainbat eragileren artean. Prekarizazioa, profesionalizazio falta, *hobbie* moduan ikusia izatea, babes falta eta aitortza falta dira, antzerkigintzan diharduten pertsonen eguneroko errealitatea, eta egoera hori iraultzeko asmoz sortu da DAP. Eta horretarako 5 lan-lerro jarri dituzte martxan: **DAP FORMAKUNTZA** (ikastaroak, tailerrak...), **DAP BIDELAGUN** (eragile ezberdinen arteko elkarlana), **DAP PLAZARA!** (bailarako programazioan eragin nahi dute), **DAP SORMENA** (arte eszenikoetako proiektuak sustatuko dituzte) eta **DAP KOMUNIKAZIOA** (antzerkia presente egon dadin gure kultur imaginarioan). Informazio gehiago: [www.dap.eus](http://www.dap.eus)

## Bermeo eta Gaztelugatxera, Pake Lekuren eskutik

Pake Leku elkartearen 'KULTURA ETA NATURA' programako bigarren irteera otsailaren 25ean izango da, Bizkaia aldera. Goiz partean Arrantzaleen Museoa bisitatuko dute Bermeon, eta bazkalostean naturaz gozatzeko aukera izango dute Gaztelugatxen. Otsailaren 16a baino lehen eman behar da izena. Prezioa, 15€ (autobusa+sarrera). Bazkaria, bakoitzak berea ordainduko du. Irteera girotzeko, egun batzuk lehenago (otsailak 14) euskal arrantzari buruzko hitzaldia emango du Juan Antonio Apraiz bermeotarrak, Pake Lekun bertan.

**PILATES**

**KALISTENIA**

**ENTRENAMENDU  
FUNTZIONALA**

*eratu*

San Lorentzo 54 | T. 943 53 32 99 | M. 652 712 123 | [eratu@euskalnet.net](mailto:eratu@euskalnet.net) | [www.eratufisioterapia.com](http://www.eratufisioterapia.com)



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

**Bidaurreta Dorrea z/g**  
**20560 OÑATI**  
**Tel.: 943 78 20 72**  
**kontzejupetik@onati.eus**



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## KONTZEJUPETIK

### Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

### Zuzendaria:

Iñigo Arregi

### Publizitatea:

Aratz Losada

### Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

### Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

### Inprimategia:

Gertu

### Tirada:

5.500 ale

### Lege gordailua:

SS-357/91

### Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

### Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa  
20560 Oñati (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 20 72

## Zuzenketa

### Kontzejupetik

Udalbatzak 2022rako onartu dituen udal aurrekontuen berri ematerakoan, EAJk aurkeztutako proposamenek milioi bat euro pasatzeko inbertsioa eskatzen zutela idatzi genuen urtarileko zenbakian, eta datu hori ez da guztiz zuzena.

EAJren udal taldeak abenduaren 3an zabandu zuen aurreneko proposamenen jasotzen ziren inbertsioek 1.087.000 €-ko aurrekontua eskatzen zuten, baina, ondoren, Ogasun batzordean gaia aztertu ostean, gobernu taldearen aurrekontu proposamenari jeltzaleek aurkeztutako emendakinek 440.000 euroko aurrekontua zuten, 2022ko udal aurrekontuetan inbertsioetara bideratutako 2,6 milioi euroko diru-atalaren %17 inguru.

## OHAR ETA DEIALDIAK

### ESPETXEAN GAIXOTASUNAK SUPOSATZEN DUEN SAMINAREN INGURUKO FILM-DOKUMENTALA ETA SOLASALDIA

Kartzelan gaixo dauden presoek jasan behar izaten duten eskubide urraketa eta indefentsio egoera aztertzeko bi saio antolatu ditu SARE herri plataformak. Gotzon Telleria preso oñatiarraren eta beste preso gaixo larrien egoera bistaratu nahi dute.

### FILM-DOKUMENTALA

Otsailak 8, kultur etxeko zinean (19:00)

Lander Garrok zuzendutako 'Tipularen sehaska kanta' dokumentala emango da. Kartzelan gaixo egotearen esperientzia biz izan duten pertsonen esperientzietan oinarritutako filma.

### HITZALDI-SOLASALDIA

Otsailak 15, Santa Ana aretoan (19:00)

Txema Matanzas abokatuaren eskutik, Gotzon Telleria eta preso gaixo larrien inguruko solasaldia.



## UDAL EUSKALTEGIKO matrikula-zozketaren irabazlea

Udalak ikasleen matrikulazio-kostuak arindu eta euskaltegiaren matrikulazioa bultzatzeko, matrikula baten zozketa egin ohi du euskaltegian ikasturte osoko matrikula egin duten ikasleen artean.

2021-22eko sariduna **C1 mailako Ainhoa Anduaga Moyua** izan da. Argazkian dago bera saria jasotzen (273,86€) Udal Euskaltegiko zuzendari Roberto Altunaren eskutik.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 78 11 15 • [www.batuak.com](http://www.batuak.com)



# “PREZIORIK ONENAK ETA GERTUKO ARRETA”

TELEFONO FINKOA  
+ **FIBRA**  
100Mb

+ **25Gb**  
MUGIKORRA  
DEI MUGAGABEEKIN

+ **3Gb**  
2. MUGIKORRA  
DEI MUGAGABEEKIN

**39'90**  
€/HILEAN  
(BEZ barne)

BETIRAKO. IGOERARIK GABE!  
Alta ematea eta instalazioa **DOAN**

## EXTRAK:

\*Tarifa orokorretara gehitu daitezkeen aukerak

**TV** PREMIUM + **6** €/HILEAN

**2. ETXEBIZITZA**  
FIBRA + FINKOA + **18'90** €/HILEAN  
(Estatuko edozein herrian)

### \*MUGIKOR GEHIGARRIAK

**5Gb** + **3** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

**8Gb** + **5** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

**25Gb** + **8** €/HILEAN  
DEI MUGAGABEEKIN

## \* KONTSULTATU DENDAN ESKAINTZA BEREZIAK



MÁSMÓV!L

**LIZKER**  
INFORMATIKA

Atzeko kale 32, OÑATI · Tel.: 943 090 600 (Aitor)



*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

## URTE BERRIA - IKASTURTEA AURRERA

Konturatu orduko iritsi zaigu urtarrila eta ez da gutxi falta udaberrirako. Ikasturte aurrera joan zaigu eta Txaloka ludotekan bizirik gaude. Ez da erraza izaten ari, pandemiako bigarren ikasturtea izango da, eta asko ikasi dugun arren nekeza ere bada. Ekintza eta bizipen asko atzeratu behar izan ditugu egoerak hala eskatuta eta horrek faktura pasatzen digu. Aurrera eraman diren ekintzak ere baditugu jakina, eskerrak.

Besteak beste, gure ortu lorategia sortu genuen eta bertan neguko produktuak sartu genituen. Laster batean uzta jasotzeko moduan izango dugu, tipulinak, berakatzak, baba beltzak, eta ilarra. Deseatzen gaude! Gainera loreak eta landareak ere sartu genituen eta eguraldi urtsu eta hotzari aurre egin diote momentuz. Polit-polit dago egia esan!

Ortu lorategiari nortasuna emateko Mirarirekin aurreikusitako murala egin genuen eta haurrak oso gustura ibili ziren. Orain udaberriko berotasunaren zain gaude inaugurazioa gauzatu eta gerturatzen garen guztion artean murala amaitzeko.

Aurrera begira jarritz gero, ez dugu amore emango, hamaika jarduera ditugu esku artean. Ekintza bereziekin jarraituko dugu, eta tarteka ipuin kontalari edota magoak ekartzea dugu buruan ondorengo hilabeteetarako. Aipatutako inaugurazioaz at Ludoteka ibiltaria otsailean abiatuko da eta lau hilabetez oñatiko auzo ezberdinetan barrena ibiliko gara tailer ezberdinak garatuz, hilean behin larunbat goiz batean herriko txokoak jolasez bustiko ditugu. Familian jolasteko aukera paregabea da!

Udalekuak eta ate joka daude ... zenbat gauza!

Adi egon deialdiei! Primeran pasatzen dugu jolasten ikasiz! Egunerokotasunean ere dinamika eta lanketa ugari egiten ditugu, Lizaur Kale 5en eta inguruetako txokoak miatzen.

Apurka- apurka, gure erritmoan lanean jarraitzen dugu! Animatu Txaloka Ludotekara!



**AGENDA:** 2022.02.5 eta 2022.02. 6 Laser Tag. Gaztelekuan. 2022.02.12 Harrapo Harrapoka Txapelketa Topalekuan. 2022.02.19 Kontzertua. Liher 20:00etan, 6€. 2022.02.20 Badminton Txapelketa Topalekuan. 2022.02.25 Karnabalak Ludotekan. 2022.02.26tik 2022-03.1era Martxoak 1era Inauteriko Ekintza Berezia.





# atxi murka

Sentsazio batzuk gogoratzea nahi nituzke

azalera atxiki

aurrez ez nituenak ezagutzen


akaso besterik Gabe

itzaliko dira denboran zehar

gauza guztien bakean

elkarren oso ezberdin

susmatzen ez ditugun bizitzetara.



# 'Nire sindromea'



Urko Egaña

Mungiako (Bizkaia) San Antontxu bertso paper lehiaketaren XXIV. edizioan saritutako bertso sorta. Dandy Walker sindromea 'kontakizun erreala' jaso du Egaña, kolektibo horren aldarriarekin bat eginez.

**Doinua: Ausência (Imanol kanta IIA/B-ra egokituta)**

**1.** Duela hamabost urte hamalau urte zituen mutil gazte bat naiz. Dandy Walker sindromea dut nik "gaitz", gaitz gisan hartu nahi baduzue hau. Bizibide malkartsu guztiak lau bilakatzen ahalegintzen naiz maiz, gizarte hain berekoi honetan nahiz trabak gainditzen jardun goiz eta gau. Nire haurtzaroak niregan dirau nire ilusio eta nire nahiz, nire begi-nini bete eta blaiz nire etorkizunak kezkatzen nau.

**2.** Nire buruaren buruhaustea eta nire sindromearen pausak eragindako ezinen errautesak baliatuz nahi dut hegan hastea. Sinesten dut patuan sinestea neuk biziaz neu naizenaren kausak nik ere bai baititut nire gauzak baina ez dut nahi aterik ixtea. Nire bizitza ez da hain triste eta horrek harrotzen ditu hautsak, zenbaitek ez baitituzte nahi ahuntzak zelaietan saltoka ikustea.

**3.** Haur bat nintzenetik dut ikasteko eta garatzeko ilusioa nahiz eta zenbaitzuen desioa sekula ez den izan laguntzeko. Gehiago izan da izorratzeko! Hau da jaso dudana pertzepzioa eta nire interpretazioa neure burua interpretatzeko. Nik sentitzen dudana ulertzeko eskolatik dator prozesioa. Bi irakasleren obsesioa ume nintzena ume gelditzeko.

**4.** Ikasteak liluratzen ninduen matematika, soinketa, euskera... Nire ikaskideekin batera gauza asko ikasi nahi nituen. Baina han maisuak agintzen zuen. Hala, ni ikasgelatik atera, aldameneko gela huts batera joan eta zerbait marrazten nuen. Ez dakit munduak ulertu duen zein den egun dagokion papera edo le(he)n egiten zuen antzera baztertuta uztea nahi gaituen.

**5.** Gure mundua aldatzen ari da eta urrats gehiago ematean, eta urrats hoiek eman artean ez gaitzean joan hamildegira. Nire nahiak ez doaz urrutira nahiz mugatu daitezken gizartean! Mundu anitzago bat izatean guztiok izango dugu kabida. Jar gaitzean geroari begira zoriontasunerako atean, mundu inklusiboago batean mundu gehiago sortuko baitira.

**6.** Ez ote naiz ameslari ergela? Nahiz bi hankak ondo izan zoruan nik ametsetan dihardut zeruan badakidalako posible dela aldatzea ohituren erregela guk bizi dugunaren inguruan eta entzun gaitzatela munduan gaur arte egin ez duten bezela. Nik badakit desberdinak garela norbanako denok garen moduan, beraz gu tratatzerako orduan ere berdin tratatu gaitzatela.

**7.** Desberdinak ez du esan nahi txarra, desberdina da soilik desberdina! Nahiz zentzu askotan izan berdina, badago bereizten jakin beharra. Gizarteak jarri dezake marra, protokolo on batekin, jakina! Maitasunez eta taktuz egina, horrek emango bailuke indarra! Ekaitzaren osteko ostadarra bistaratze hutsaren eragina eta utziko duen etekina dira ikusi nahi dugun bakarra.

**8.** Zer da besteekiko maitasuna besteak ulertzen ditugunean? Hori lortzera heltzen garenean ez al da lortzen zoriontasuna? Bi galdera hoi etxen erantzuna eman beharrik ez daukagunean sinistuko dut berdintasunean! Existitzen bada berdintasuna... Gabezia edo urritasuna aberastasun bihurtzen denean gutako bakoitzaren barrenean aurkituko da aberastasuna.

DANDY

**JUANJE MARGOAK**  
627 818 247

**ARKITEKTURA**

Baserrien eraberritzeak • Isolatzailea fatxadetan • Igogailuak

tel: 677 31 20 57 \* amaiigartua@gmail.com



# Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi  
zaituztegu,  
**Arrasate/  
Mondragonen**  
bertan ere artuko zaitu  
Zuatzu Klinikako  
espezialista-taldeak,  
hogei urtetik gorako  
esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.  
Jaio aurreko diagnostikoa.  
Bularretako patologia.  
Laguntza bidezko ugalketa.



Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon  
943 792 018 . [www.clinicazuatzu.com](http://www.clinicazuatzu.com)

**TXIRRINDULARITZA** / hiru oñatiar izango ditugu aurten, afizionatu mailako ziklisten tropelean

# Errepideratzeko prest

Datorren asteburuan hasiko da afizionatu mailako txirrindularien denboraldia, eta aurten hiru ordezkari izango ditugu 23 urte azpikoen mailan: Unai Cueva (Grupo Eulen-Nuuk), Danel Casais (Laboral Kutxa-Euskadi Fundazioa) eta Aimar Erostarbe (Cafés Baque). Cuevarentzat bigarren denboraldia izango da; Casais eta Erostarberentzat debut urtea. Zorte on!

**«lazko esperientzia eta kilometroak baditut, eta igarriko dela espero dut»**

Unai Cuevak (Oñati, 2002) bigarren denboraldia egingo du Grupo Eulen-Nuuk talde zarauztarrean, Ismael Echarri (managerra) eta David Etxeberria (zuzendaria) profesional ohiaren aginduetara.

laz bere sasoi puntu onena lortu ezinik ibili zen, Covid-aren ondorioz, baina egingako kilometro guztiak igarriko direla uste du. "Esperientzia pittin bat badaukat, badakit nolakoak diren afizionatu mailako karrerak, eta gogotsu nago, ilusioarekin, denboraldi berriari begira".

Pittin bat atzeratuta darama prestaketa, gripe baten ondorioz, baina laster egongo da lehiazeko moduan. Euskal Herriko eta Espainiako probetan ez ezik, Frantzia eta, agian, Portugalen ere ariko dira. "lazko maila hobetzea da nire helburua. Nire onena eman ahal izatea eta taldeari ahalik eta gehien laguntzea".



Unai Cueva, Eulen taldean.

**«Ez nuke urtea oharkabea pasatu nahi. Zerbaitetan nabarmendu nahi dut»**

Danel Casais (Oñati, 2003) Laboral Kutxa-Euskadi Fundazioaren eskutik egingo du debuta afizionatueta.

Jubeniletan oso maila onean aritu da (iaz 6 garaipen, Kantabriako Itzulia tartean) eta eskaintza bat baino gehiago izan du, baina garbi zeukan azken urteotako prestatzailearen (Jorge Azanza) ondoan jarraitu nahi zuela.

Urtarrilaren 1etik 18ra Altea egon da (aurreneko hamar egunak taldearekin) kilometroak egiten, eta gogotsu dago ekiteko. "Sasoi puntu onenetik urrun nago oraindik, baina denboraldia luzea izango da. Ez dut uste kategoría berriari neurria hartzeko arazorik izango dudarik, baina hilabete batzuk pasa beharko dira disputatzen hasi ahal izateko. Aurtengo nire helburua izango da zerbaitetan nabarmentzea, eta ez pasatzea urtea oharkabea".



Danel Casais, Laboral Kutxa.



oñabike.com

Otaui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK



## «'Lieja'n parte hartuko du taldeak eta ilusioa egingo lidake han egoteak»

Aimar Erostarbek (Oñati, 2003) Baque talde bizkaitarrarekin egingo du debuta afizionatuen mailan. Beste eskaintzarik ere izan zuen mahai gainean, baina bere orain arteko prestatzailearekin (Ander Altuna) jarraitzea hobetsi zuen. Gainera, lagunak ere baditu taldekide berrien artean.

Calpen egin berri dute aste-beteko egonaldia eta gogotsu dago denboraldiari ekiteko. "Kategoriari neurria hartzearekin konformatzen naiz aurten. Lau urte zaharragoekin lehiatzea ez da samurra izango, baina, aldi berean, hori berori da motibatzen duena".

Euskal Herria, Espainia eta Frantziako probetan ez ezik, Liège-Bastogne-Liège (sub23) klasikoan ere parte hartuko du Baque taldeak keta ilusio berezia egingo lioke bertan egoteak.



Aimar Erostarbe, Cafes Baquen.

## Otsailaren 27an hasiko dira Aloñakoak



Herriko txirrindulari taldeak ere prest dauka denboraldi berria. Azken orduko gorabeherarik ezean, otsailaren 27an hasiko da gazte mailako txirrindularien denboraldia Eibarren. Jubenil mailaz gain, kadete eta eskolarte mailako txirrindulariak izango ditu aurten, eta otsailaren 19an (13:00) egingo dute aurkezpena unibertsitate kanpokaldean.

**LIZENTZIAK** Bestalde, zikloturista lizentzia berritzeko kanpaina martxan dauka Aloñak. 160€ kostua izango du. Informazio gehiagorako: [alonaziklo@gmail.com](mailto:alonaziklo@gmail.com)

## MOTZEAN

## Espainako selekzioaren deia jaso du Maren Arabaolaza futbolariak

Realean jokatzen ari den Maren Arabaolaza oñatiarrak Espainiako 15 urte azpiko selekzioaren deia jaso du. Urtarrilaren 24tik 26ra Las Rozasen egindako entrenamendu saioetan parte hartu zuen eta esperientzia "oso aberasgarria" izan dela aitortu digu.

Aloña Mendin hazitako futbolaria da Maren, eta Realaren emakumezkoen hirugarren taldean jokatzen ari da. Ane Isasismendi oñatiarrak ere talde berean jokatzen du. Albiste pozgarria, inondik ere, bai jokalariaientzat berarentzat, eta baita Aloña Mendiko futbol sail osoarentzat ere.



## Talde aldaketa urte berrirako

Azken urteetan herrian asko nabarmendu diren bi kirolarik talde aldaketa egingo dute denboraldi berrian. Ainara Uribarri mendi lasterkaria Brooks Running taldean arituko da. Estatuko mendiko korrikalari onentsuenak bildu nahi dituen proiektua da eta errendimendu altua bilatuko du, markaren baloreak sustatzearekin batera.

Mikel Ugarte triatletak berriz, Atlético San Sebastián utzi eta ANB Triatlon Labastidako kide izango da. 2017an sortu zen proiektua, nazioarte mailan erreferente izateko asmoarekin. Gogoratu beharra dago, Ugartek aurrerapauso handia eman duela azken urteetan, distantzia luzeetako probetan.

## Mendi irteera Kodes mendilerroa

Araba eta Nafarroa artean da- goen Kodes mendilerroan ze- har izango da Aloña Mendik hile honetarako antolatu duen mendi irteera, otsailaren 20an. Kodes santutegian abiatu eta

Joar (1.411m.) mendia igoko dute, Kanpezura jaisteko (15km / 900+) Otsoen bidetik. Ibilbide klasikoak, 6 ordu inguruan egi- tekoea. Irteera, goizeko 7etan, postetxe parean. Otsailaren 17a baino lehen eman behar da izena Aloña tabernan. Bazkideak, 10€. Federatuta egon behar da.



Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • [www.mapfre.es](http://www.mapfre.es)

Jaione San Miguel Ugarte



**MAPFRE**  
OÑATI



Iñigo Ibarrodo  
(baxua),  
Egoitz Olalde  
(bateria), Ane  
Arruti (ahotsa  
eta gitarra) eta  
Iker Martinez de  
Zuazo (gitarra),  
KEIA TALDEA

# Keia talde sortu berriak Oñatin aurkeztuko du bere lehen diskoa

Ana Arruti zarautzarrak gidatzen duen taldea Iker Martinez de Zuazo, Iñigo Ibarrodo eta Egoitz Olalde oñatiarrek osatzen dute

Esperientzia handiko hiru musikari oñatiarrez inguratu da Ane Arruti zarautzarra **Keia** taldea sortzeko, eta Oñatin bertan emango dute aurreneko kontzertua otsailaren 12an, Antixena gaztetxean.

Ane Arruti (Zarautz, 1985) bera ere ibilbide luzeko musikaria da, *Arrutiko Intxaurrak* izenpean aritu izan da bakarkako formatuan,

baina oraingo honetan taldearen indarra eman nahi izan die bere kantei. "Urtean zehar pilatzen joandako kantu batzuk grabatu nahi nituen, eta Iker Martinez lagunarengan jo nuen laguntza eske. Kantuek zer behar zuten ikusten joan ginen, eta bateria eta baxurako berak ezagutzen zituen Egoitz eta Iñigori proposatu genien. Hasieran etxetik

landuz joan ginen kantuak eta gero Eltzia lokaletan elkartzen hasi ginen. Denok elkarrekin joz kantuek beste indar bat hartzen zutela ikusi genuen, eta animatu egin ginen grabazio estudioan sartu eta zuzenekoak ematera" azaldu digu Arrutik.

Taldekide oñatiarrei dagokienez, ez dute aurkezpen handirik behar; *Latzen*, *Potemkin*, *Sharon*



▼ **Keia** taldearen aurrerapen kanta ('*Ez zara zu*') bideoa eta guzti entzuteko aukera dago Youtuben



**TABERNA • JATETXEA**

Bidebarrieta 6  
Tel.: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

# FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA







*Stoner, Sorkun, Zingira, Lenao* edo *Amonal* bezalako taldeetan arituak, eskarmentu eta maila handiko musikariak dira hirurak.

#### DISKOAREN AURKEZPENA

Azaroa eta abendua artean grabatu zuten diskoa Beran, Iñigo Irazokiren Atala estudioan, modu analogikoan, eta ondoren Jonan Ordorikak masterizatu du Mamia estudioan.

Ane Arrutik berak idatzitako hamar abesti biltzen ditu diskoak, rock estilokoak. "Oinarri erritmiko sendoa dute eta gitarrak ere presentzia handia dute" azaldu digu zarauztarrak. Letra gehienak ere bereak dira, bi izan ezik; horiek Jon Garmendia *Txuriya* idazlearenak dira. "Denetik dago hitzetan; gure ziurtasun faltak, ezinegonak, itxurakeriak, damuak, momentua bizitzearen beharra...".

Urtarrilaren 11n 'Ez zara zu' izeneko aurrerapen kantua aurkeztu zuten sareetan, eta, esan bezala, Oñatin bertan izango dugu diskoa lehen aldiz zuzenean entzuteko aukera otsailaren 12an, gaztetxean. ■

Otsailaren 12an, Antixena gaztetxean (22:00) emango du bere lehen kontzertua *Keia* taldeak, *Ginger* zarauztarrekin batera

## Aita Madinaren obra bat estreinatuko du Musikeneko orkestra sinfonikoak

MUSIKENEko (Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia) orkestra sinfonikoak Aita Francisco Madinaren (Oñati, 1907-1972) *Tetraludium* obra estreinatuko du **otsailaren 12an** (19:00) Musikenaren egoitzan bertan eskainiko duen kontzertuan. Buenos Airesen bizi izan zen garaian konposatu omen zuen obra hau Aita Madinak, baina ez omen zen inoiz jendaurrean interpretatu. Madinaren musikaz gain, J. Guridi, P. Sorozabal eta F. Escudoren obra bana ere joko ditu Musikeneko orkestrak, Unai Urrechoren zuzendaritzapean.




**MADINAREN URTEURRENA.** Aurten Aita Madina zenaren heriotzaren 50. urteurrena betetzen dela kontuan hartuz, haren lana gogoratzeko hainbat ekitaldi antolatzen ari da Artixa taldea, Oñatiko udalaren laguntzarekin. Aurrerago aurkeztuko dituzte urtean zehar antolatuko diren kontzertu-ekitaldi ezberdinak, baina, dagoeneko, urteurrenerako prestatu duten logoa aurreratu digute.

## 'Altsasu' eta 'Bonbon beltz' antzezlanak ikusgai otsailean

Igande honetan (otsailak 6) **Altsasu** antzezlanak ikusteko aukera izango dugu Santa Ana antzokian (19:00), *La dramática errante* taldearen eskutik. 2016an Altsasuko Koxka tabernan izandako liskarraren harira epaitutako zortzi gazteen kausaren inguruan sortutako antzezlanak da.

Bestalde, otsailaren 25ean Zuberoako Herriminak taldearen **Bonbon beltz** lana ikusteko aukera izango dugu Santa Anan. Gure hizkuntzan egindako artea sustatu asmoz, Udalbiltzak sortutako 'Geuretik sortuak' programari esker *Herriminak* taldeak Oñatin egindako egonaldi artistikoan sortutako lana da. Ispiluaren aurrean jarri eta 'biluztu' egingo omen gaituzte oñatiarrok.



## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

## GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47  
Oñati

# AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta  
www.onati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



## KONTZERTUAK

OTSAILAK 11 / 22:00

**PLEURA + MENDIKOA**

Rock talde nafarrek beren azken lanak aurkeztuko dituzte. Sarrera: 5€ / 3€. [Antixena gaztetxean.](#)

OTSAILAK 12 / 22:00

**KEIA + GINGER**

Keia (Zarautz-Oñati) eta Ginger (Zarautz) rock taldeen kontzertua. Sarrera: 5€ / 3€. [Antixena gaztetxean.](#)

OTSAILAK 18 / 21:00

**UNIDAD ALAVESA + BAAMS**

Ataungo folk-rock, eta Hernani-Donostia aldeko rock taldeen kontzertua. [Ikatx tabernan.](#)

OTSAILAK 19 / 20:00

**LIHER**

Donostiako rock taldeak iazko azaroan kaleratu zuen azken diskoa ('Eta Hutsa Zen Helmuga') aurkeztuko du. Sarrera: 6€. [Gaztelekuan.](#)



OTSAILAK 19 / 20:30

**NARE + YOGURINHA BOROVA + MALAKIAS**

Errotxapeako gaztetxearen etxegabetearen ondorioz izandako kostu ekonomikoei aurre egiten laguntzeko jaialdia. [Antixena gaztetxean.](#)

OTSAILAK 25 / 21:00

**DISCÍPULOS DE DIONISOS + CRAP**

Donostia eta Arrasate-Aretxabaletako punk taldeen kontzertua. [Ikatx tabernan.](#)

## ANTZERKIA

OTSAILAK 6 / 19:00

**'ALTSASU'**

*La dramática errante* konpainiaren eskutik. Sarrera: 10€. [Santa Ana antzokian.](#)

OTSAILAK 25 / 19:00

**'BONBON NOIR'**

Zuberoako Herriminak taldeak 'Geuretik sortuak' ekimenaren baitan Oñatin egindako egonaldi artistikoan sortutako lana aurkeztuko du. Sarrera: 8€. [Santa Anan.](#)

**KONTZERTUA / OTSAILAK 13, ZUBIKOA PILOTALEKUAN / 13:00**

## PELIKULETAKO SOINU BANDAK MUSIKA BANDAREN ESKUTIK

Ikasturteko hirugarren 'Gutiziak' kontzertua eskainiko du Aitor Biain Bidartek zuzentzen duen musika bandak otsailaren 13an, eta zineari eskainitakoa izango da. Historiako zazpi pelikula ezagunenetakoen soinu bandak entzun ahal izango ditugu: *La gran evasión*, *Gladiator*, *Memorias de Africa*, *Star Wars*, *La La Land*, *Tarzan* eta *Les Misérables*. Aurretik kalejira egingo dute goizeko 11etan

### BANDA BARRUTIK

Hile honetako kontzertuak badu beste berezitasunik, izan ere, musika eskolako ikasleak publikoan egongo baitira. Gainera, aurtun instrumentua aukeratu behar duten gaztetxoek musika banda barrutik ezagutzeko aukera izango dute; kontzertua hasi aurretik (12:00) instrumentu desberdinak ikusteko aukera izango dute, eta kontzertua bera ere musikarien artean eserita jarraituko dute.



## IPUIN KONTAKETAK

OTSAILAK 24 / 18:00

**IRUDIPUINAK**



6 urtetik gorako haurrentzat. Ixabel Agirresarobe eta Mattin ilustratzailearen eskutik. Izen-ematea, otsailaren 14tik aurrera: [liburutegia@onati.eus](mailto:liburutegia@onati.eus) / 943716111 / WhatsApp 688732826. [Udal liburutegian.](#)

## HITZALDI-SOLASALDIAK

OTSAILAK 9 / 18:30

**ARGINDARRAREN ARRAKALA. Zer dago honen prezioaren igoeraren atzean?**

Hizlaria: Sukar Horia kolektiboa. STHk antolatuta. [Antixena gaztetxean.](#)

OTSAILAK 14 / 17:30

**ARRANTZA EUSKAL HERRIAN**

Hizlaria: Juan Antonio Apraiz. Pake Lekuk antolatuta. [Pake Lekun.](#)

OTSAILAK 21 / 17:30

**SANTIAGO BIDEA**

Hizlaria: Agotz Iturbe. Pake Lekuk antolatuta. [Pake Lekun.](#)

OTSAILAK 23 / 18:00

**ZAHARTZEAZ ETA FEMINISMOAZ PENTSATZEN**

Hizlaria: Mari Luz Esteban. Emakumeen Jabetze Eskolak antolatuta. [Zine aretoan.](#)

## JAI ETA OSPAKIZUNAK

OTSAILAK 4 /

**SANTA AGEDA KANTAK**

Pake Lekuko Aloña abesbatza herrian zehar ibiliko da kopia kantari.

OTSAILAK 5 /

**EUSKAL UDALEKUEN JAIALDIA**

Euskal Udalekuek hiru etxetako ordezkariak gaztetxean ibiliko dira aurtengo udarako kanpaina prestatzen. Gau partean jaialditxo bat ere egingo dute. [Antixena gaztetxean.](#)

OTSAILAK 20 / 18:30


**INAUTERIAK PAKE LEKUN**

Otaratekoa, edaria eta dantzaldia. Txartelak otsailaren 13an (18:30-19:30) egongo dira salgai Pake Lekun. Prezioa: 1€ (bazkide ez direnentzat 2€). Mozorrotuta joateko deia luzatu dute. [Pake Lekun.](#)



## DOKUMENTALA

### ANDEREA



Udal liburutegiaren eskutik Yolanda Mazkarian (Altsasu, 1974) zinegile nafarraren 'Anderea' dokumentala ikusteko aukera izango dugu **martxoaren 1ean**, kultur etxeko zine aretoan (18:00). Euskaraz emango da filma, gaztelaniazko azpitituluekin. Euskal mitologiako pertsonaia nagusia den Mari edo Anbotoko damarengan oinarritutako dokumental errealista eta onirikoa da. Emakumeen jabeakuntza gaur egungo topiko garrantzitsua den honetan, gure mitologian dugun ANDERE SUBIRANOaren memoria eta oroimen historikoa berpiztu nahi du dokumentalak, EMAKUME ASKEAREN eredua delako. Euskara, ingurumena eta auzolana bezalako baloreak ere goraiatzeko dira.

## LIBURUTEGIA



### Hileko gomendioa

Bi urtez basoko txabola batean bizitzeari buruzko esperientziaren kronika. Politikoa eta poetikoa du idazkera. Gizarte industrialari eta haren sistemari egindako kritika eraldatzailea. Esan, Antonio Casado da Rocha Oñatin izango dugula, Ingurumen Jardunaldietan. **Liburua**

## ZINEA



### Otsailak 3 - 7

**ZINE KLUBA:**  
**La vida era eso**  
**NAGUSIAK:**  
**El callejón de las almas perdidas**  
**GAZTETXOAK:**  
**Canta 2**



### Otsailak 17 - 21

**ZINE KLUBA:**  
**La vida secreta de los árboles**  
**NAGUSIAK:**  
**La abuela**  
**GAZTETXOAK:**  
**Tengamos la fiesta en paz**




## ORDUTEGIA

**Zine-kluba:** Osteguna (20:00)  
**Nagusia:** Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).  
**Astelehena** (19:30 / ikuslearen eguna)  
**Gaztetxoak:** Larunbat eta Igandea (17:00)

### Otsailak 10 - 14

**ZINE KLUBA:**  
**Tres pisos**  
**NAGUSIAK:**  
**No somos nada**  
**GAZTETXOAK:**  
**Bella y el circo mágico**



### Otsailak 24 - 28

**ZINE KLUBA:**  
**Zumikiri**  
**NAGUSIAK:**  
**Belfast**  
**GAZTETXOAK:**  
**Unchurted**



## FARMAZIA

### ANDUAGA

**San Lorentzo 3** ☎ **943 78 21 16**  
Otsailak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24.  
Martxoak 4, 5 eta 6.

### IGARTUA

**Kale Zaharra 1** ☎ **943 78 01 22**  
Otsailak 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27.

### GARATE

**Kale Barria 42** ☎ **943 78 05 58**  
Otsailak 1, 9, 10, 18, 19, 20 eta 28.  
Martxoak 1.

### TULDAIN

**Kale Barria 6** ☎ **943 78 11 28**  
Otsailak 2, 3, 11, 12, 13, 21 eta 22.  
Martxoak 2 eta 3.



## MERKATU TXIKIA

**ETXEBIZITZA EROSI** Erosten dut pisua edo apartamentua Oñatin. Deitu: 680398022.

**ETXEBIZITZA SALGA** Aozaratza kalean (4 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela, bat egokituta). 685727662 / 665712294.

### KLASE PARTIKULARRAK

Ingeniaritza ikasten ari den neska, klase partikularrak emateko prest. 688633149.

**GARAIEA ITXIA ALOKAGA** Ramon Irizar kalean. 619817072.

## ODOL ATERALDIA

**OTSAILAK 18 / 16:30-20:30**  
Enpresagintza fakultatean



**ARRIZABALAGA**  
**Aroztegia**

Berezao Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64



**PAKITA**  
**Altzariak**

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

## IRAZOLA

**Okindegia**

Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserrniko agia, egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



(\*) Itten: arrastua, pistia

## AURREKOMENDIKO — SARRAMENDI BASERRI INGURUKO — HIRU ITTURRI

### 2) Aixal-itturri

Torretxebarritik gora doian pistiari goixeneraiño jarraituta, *Koroso* baserrira ailegauko zara. Haxe pasau eta Antzuolako bidia hartu, eta, bostehun bat metro beheruntz egitten badozu, dana laun samarrian, hantxe eskumaldian, bide kontran, **Aixal-itturri** (Azeri-iturri) edo, mapetan agerketan dan letxe, *Korosoko itturixa* ikusiko dozu. Handik behera egin ezkerre, berriz, Antzuolako Antiguako industrialdera urtengo dozu.

Itturrixan zagozela erreka-arruaren beste magalian, bi baserri agiri dira, *Arrandaritorre* eta *Arrandariozaeta* [Arrandei] izenekuak, Antzuolako Irmoegibarrena auzokuak, hain justu be. Malda horren goixenian Azaldegiatako [Azaldittako] lautadia dago, famosua San Balandran egunian —agustuko Andra Mari egunaren hurrengo domekan— ospaketan zan Azaldittako egunagatik, inguruko herrixetako gazte jentia juntaiten zana erromerixa ospetsua egitteko.

Fotografixan ikusten danez, itturixa bera oso kurioso dago, orainddiok ura hartzeko ebalten dan seiñale. Askia eta alberga haundixa dako, ura jarixo haundixan datorrela; lihorte gogorrek jotzen dittuenian be nekez agortuko dala esan gura dau horrek. Bere garaixan puxetarri bat be euki ei eben, baiña gaur egunian ezta haren arrastorik agiri. Sarramendikuak, euren etxeko ur-depositua gastauaz xoianian, **Aixal-itturrira** faten ziran uretara, iri paria lotu eta burdixan barrikak hartuta.

Argibidiak: Sarramendiko Migelanjel Kortabarria.  
Eskerrik asko!



Goixan,  
Koroso  
baserri  
inguruak,  
Argilekutik  
ikusitta.  
Ezkerrian,  
Aixal-itturri.

### >> JAKINGARRIXA

Zoritxarrez, leku-izenetan galera haundixa suertau da azkeneko bi belaunaldi edo jeneraziñotan. Ia, ba, asmaten dozuen zela esaten osten gure gurasuak leku-izen honeiri. Horretarako lotu oraingo izenak lehenagokuakin.


#### ORAINGUA

1. Upaingo mahastixak
2. Larraña auzoko Pullangua, Sesiñena eta Erbiña baserrixak
3. Arranoaitz
4. San Lorentzo auzua
5. Olakua auzoa
6. Madalena auzua
7. Lizar-etxe (Olabarrieta)
8. Oñatira begira dagozen Aloñako zelaixak
9. Martzelino Zelaia kalia
10. Trianako sarrera ingurua

#### LEHENGUA

- A. Arrandaitz
- B. Narria goikua
- C. Balentzategi / Santxolopeztegi / Txantxilpilizte(g)i
- D. Orueta auzua
- E. Aloñako hegixa
- F. Portalekua
- G. Jardiñazpi
- H. Narria behekoa
- I. Auzotxo
- J. Enparantza





## 📷 ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



### Albarritzako hargiña

**O**ñatin, beste herri askotan letxe, **era desbardiñetako lanbidietan jardundako gizakumiak** eta emakumiak izan dittugu historixan zihar, eta ugari gaiñera: errementarixak, ultzegiñak, olagizonak, perratzaillak, arotzak, uztargiñak, zerrarixak, ikazkiñak, baso-mutillak, karreteruak, hargiñak, harrijolliak, kamiñeruak, artzaiñak, nekazarixak, morroiak, zapatarixak, abatxerak, joskiñak, iruliak, ehungillak, arropa-garbitzaillak, plantxadorak, neskamiak, iñudiak, txokolateruak, konfitteruak, barberuak, pelukerak eta beste hainbat; industria eta zerbitzio modernuagotan ibili diran eta dabiltzen fabrikante, eskribiente, dendari, tabernari eta bestelako merkatarikari nahiz artisau mordua ahaztu barik.

Gaurko honetan, orain dala gutxi fan xakun artisau oñatiar bateri **omenalditxua** egin gura xaugu: Garagaltza auzoko **Albarritza** baserrixan jaixotako **Jabier Bikuña Urzelai hargiñari**. Harrixak lantzen txantxikuar bat baiño gehixago nabarmendu bada be, guk ezagutu dogun bikaiñena Bikuña dala esango neuke. **Eta artisau aparta ez ezik, artistia be bazan Jabier**. Etxetik etorkixon ofizio horretarako afiziñua eta samurtasuna, aittajauna eta aitta be hargiñak eta igeltseruak izan ziralako.

Oñatin leku askotan ikusi leike **Jabierren lanen arrastua**, haren esku artetsuaren testigantzaia: **kalieta, itturri publikue-tan, baserritan, bidietan, eraikin dotore nahiz apalaguetan**. Etxekuaz gaiñera eskola erabagigarrixa euki eben San Migel parroixan 1956ttik aurrera modutu ziran obra ugari eta luzietan. **Maixu egogixa eta zailla** tokau xakon elizako lan hareittan: **Manuel Vasconcelos portugaldarra**. Egogixa eskola zaharreko hargin moduan jenixo bat zalako, baiña zailla haren bestelako jenixua aguantaitteko patxada haundikua izan bihar ziñalako. Jabierrek pazientzia eutsi osten Manuelen urtenaldi zelebren eta furrustadairi eta asko ikasi eben maixu portugaldarrarekin.

Sasue haretan, Reyes Korkostegi alkate zala, **aldaketa sakonak euki zittuan Oñatiko parroixia nagusixak**. Inportantienak aittatuko dittugu: erreka gaiñeko **klaustua barrutik eta kanpotik zihero barriztau, itsututa egozen arku gotikuak berregiñaz**; klaustua eta eliziaren arteko paretak bota; hormetako harrixak bistaratu; organua kora barrerena eruan; edota **organuari eus-teko 1749xan moldau zan arku txurrigereskua sakristixa aurrera ekarri**. Arku ikusgarri hori lekuz aldaketarakuan, sekulako une latzak pasau ei zittuan hargin gaztiak. Izan be, kanbixua ixa burututa eguenian, azkenengo piezak eta giltzarrixa ifintteko falta ziranian, portugaldarrak, kasketaldi batek jota, hanka egin eben. Piezok, kostata, bere lekuan jarri zittuanian, a zelakotxe lasaittua Jabierrena!

Harrezkero, parroixan bertan eta herriko beste toki askotan itzi oskun Bikuñak bere abilleziaren makiña bat aztarrena eder: **Arantzazuko eliziaren absidian, Urrutxu aldeko kanposantuan, edota Zañartuko upategixan**, adibidez. Eta **herrittik kanpora** be ospetsu bihurtu xakun Albarritzako semia harlangintzaiaren esparruan. Lan banaka batzuk gogoratuko dittugu bakarrik: **Mikeldi izeneko animalixaren eskultura famauaren kopixia**, Durangoko Ezkurdi plazan dagueña; **Donostiako katedraleko kanpantorre neogotiko zorrotzaren garbiketia eta barrizketia**; edota **Legazpiko udaletxeko armari barrixa**, esate baterako.

Parroixako arku txurrigereskuaren fotografixetako bata 1948 ingurukua da, Donostiako **Manipel** enpresia ataratakua eta guri Iñaki Galdosek eskuratu dosku; arku horren beste argazkixa eta klaustroko arku gotikuarena 1982xan kaleratutako **Oñatiko Historia eta Arte Bilduma** liburutik hartu dittugu. Argibide batzuk Agustin Goenagarenak dira. Eskerrik asko Iñakiri eta Agustineri.

A modern dining room interior featuring a round wooden table with a dark, sculptural base. On the table are a stack of books and a glass of yellow liquid. Above the table are three white, cloud-shaped pendant lights. In the background, there is a wooden shelf with a wire basket and a framed picture. A wooden cabinet and a chair are also visible.

Utzi zure ametsetako  
etxearekin amesteari  
eta bete zure ametsa.

**Amuebladora Mondragonesan**  
**erreforma integralak** egiten ditugu zure  
ametsetako etxebizitza errealitate bihurtzeko.